



## Bilan d'activités 2012

2013ko martxoaren 23ko biltzar nagusia  
Assemblée générale du 23 mars 2013



# AURKIBIDEA

- Euskal kultur erakundeko barne antolaketa..... 3. orrialdea
  
- Euskal kultur erakundeko ekintzak :
  - 1. Kultura politika publikoen laguntzea ..... 6. orrialdea  
Aholkuak eman .....6. orrialdea  
Ikertu..... 8. orrialdea  
Partaidetzan eraiki .....10. orrialdea
  - 2. “Hogeita” : euskal kulturaren biziberritzeko ekintzak.....25. orrialdea
  - 3. Kultura aktoreen sustengatzea .....32. orrialdea
  - 4. Ezagutzen partekatzea.....55. orrialdea
  
- « Culture-Kultura » emaitza fondoa .....65. orrialdea

## **Euskal kultur erakundeko barne-antolaketa**

\* \_ \* \_ \* \_ \* \_ \*

### ***BILTZAR NAGUSIA :***

298 kideek osatzen dute: 152 kultura elkarte eta 146 herri (Euskal kultura sostengatzen duen Sindikataren partaide direnak) eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

### ***ADMINISTRAZIO KONTSEILUA***

#### **Euskal elkarteen ordezkariak :**

Danielle DUHALDE, Christiane GIRAUD,  
Frantxua COUSTEAU, Paxkal INDO, Claude IRURETAGOiena,  
Beñat CHASSEVENT, Ximun CARRERE, Peio SOULE.

#### **Legezko ordezkariak :**

##### Estatua :

Lionel BEFFRE (prefeta),  
Laurent NUNEZ (suprefeta), eta ondotik Patrick DALLENNES  
Jean-Paul GODDERIDGE, Jean-François SIBERS (DRAC Aquitaine).

##### Akitania lurraldeko kontseilua :

Alice LEICIAGUECAHAR (Lurraldeko kontseilaria),  
François MAITIA (Lurraldeko kontseilaria),

##### Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra :

Marie-Christine ARAGON,  
Guy MONDORGE,

##### Euskal kultura sostengatzen duen Herriarteko sindikata :

Paco ARIZMENDI (Donibane-Garaziko hautetsia)  
Jean-René ETCHEGARAY (Baionako lehen axuanta).

***Pertsonalitate kalifikatuak :*** Lurdes AUZMENDI (Eusko Jaurlaritza) eta ondotik Patxi BAZTARRIKA  
Jean-Baptiste COYOS, Mikel ERRAMOUSPE,  
Pierre-Paul BERCAITS

#### **Beti gomiatuak :**

Erramun BACHOC (soziolinguistikalaria),

Jean-Claude IRIART (Kontseilu Nagusiko Baionako zuzendaria)  
Bernadette SOULE (Euskararen erakunde publikoaren zuzendaria)

#### **Konduetarako komisarioa :**

\_\_\_\_\_  
Michel FAGOAGA

## **BULEGOA :**

Lehendakaria :..... Mikel ERRAMOUSPE

Lehendakariordea : ..... François MAITIA

Diruzaina : ..... Frantxua COUSTEAU

Idazkaria : ..... Beñat CHASSEVENT

## **TALDE PROFESIONALA :**

**Zuzendaria :** ..... Pantxoa ETCHEGOIN

**Kontularitza / Idazkaritza :** ..... Maddalen ERROTABEHÉRE-DUPUY (% 88-a)

## **Sail arduradunak :**

### **\* *Kultura politika publikoen aholkularitza saila***

Politika publikoen arduradunak ..... Clémence LABROUCHE  
(ama-oporretan 2012ko urria hilabetetik goiti)  
Mailys IRIART  
(2012-11-05tik geroztik, kontratu mugatuan)

### **\* *Ikusgarrigintza saila***

Konpainia profesionalen kultura arartekolaritza  
eta egitasmo artistiko berrien eragilea:..... Frank SUAREZ

Kultura arartekolaritza : ..... Maia ETCHANDY

### **\* *Etnologia & kultura ondare inmateriala saila***

Etnologoa : ..... Terexa LEKUMBERRI (94% ETP)

Ahozko ondarearen artxibatze karguduna : ..... Maite DELIART

### **\* *Argibide eta multimedia saila***

Informazio zaintzaren  
eta multimedia egitasmoen arduraduna: ..... Jakes LARRE

Webgunearen animazio eragilea : ..... Frederik BERRUET

## **Beste kontratu mugatuak :**

- Hezkuntza artistikoa eskoletan egitasmoarentzat : . Estelle CARRICONDO (kontratu mugatuan)
- Mediazioa ..... Mendi ESTEBAN (kontratu mugatuan)



# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

Euskal kultur erakundeak euskal kulturaren garapena eta zabaltzea sustatzen ditu. Xede horrekin, badu 20 urte baino gehiago euskal kulturaren babesean, transmisioan eta hedapenean ari dela, sorkuntza sustatzen duen ber. Gaur egun, kultura eragileei buruz egin laguntza lana baztertu gabe (laguntza logistikoa, teknikoa eta diru laguntza), Euskal kultur erakundeak gure lurraldean euskal kulturak daukan tokiari buruzko gogoeta amankomun batean parte hartu nahi du erakunde publiko ezberdinekin.

Hori dela eta, politika horien zehazten eta osatzen laguntzeko Obragintzari Laguntza (AMO) deitu misio berria emana izan zaio Euskal kultur erakundeari.

Alabaina, arazo ekonomiko, sozial eta kulturalak konpontzeko hor izanez, politika publiko bakoitzak helburu bat edo beste daukan norabide bat finkatzen du. Gero eta gehiago, lurralde elkargoak tokiko dinamiken abiapuntu dira. Ondorioz, politika publikoen alorrean, erregularoki obragin bezala agertzen dira. Lurralde elkargoak beren « enpresaburu » lanean arintzeko asmoz, EKEren AMO misioak erabakitzaile politikoak lagundu nahi ditu erabakia hartu aitzin.

Zentzu horretan, AMO hori jakintza berezien (ikerketa, trebetasuna...) eta eragileen arteko ikasketa eta bitartekaritza ekoizpen eremu bat da, negoziatio eta diagnostiko eremu bat, eta zergatik ez, ekintza bideak erakusten dituen eremu bat. AMO-k ez du inondik ere tokiko erabakitzaileen edo kultura eragileen tokia hartzen. Era berean, ez da beren bozgoragailua. Erabaki politikoak prestatzeko eta aurreikusteko aukera eskaintzen du. Gobernantzarendako erraztatzaile lana egiten du.

## Aholkuak eman

### ➤ **Erakunde publiko ezberdinei eta tokiko elkargoei aholkuak eman kultura politika publikoen eraikitzeko euskal kultura mailan**

Herri-elkargoak Lurraldeko euskal kulturaren garapen iraunkor baten sustapenaren ezinbesteko eragileak direla kontutan harturik, EKEk lagundu nahi ditu beren lurralde proiektua zehazten. Bere gaitasun propioen edota EKEk bere inguruan biltzen dituen eragileen bitartez, lurraldeko kultura errealitatea ongi ezagutzen du. Horrela, EKEk proposatzen du hurbiltasun ikerketa bat eta kultura politika publikoen zehaztean halako jarraipen baten egitea, lurraldeko eragileen eta tokien arteko sinergia lan baten lortu ahal izateko.

Konkretuki, eta hasiera batean, AMO-k euskal kulturari buruzko diagnostiko bat egin lezake, lurralde bakoitzeko kultura eragileen eta biztanleriaren errealitateak, beharrak eta nahikeriak agerian ezarriz. Ondotik, diagnostiko horrek programak eta norabide printzipioak zehazteko aukera emanen luke. Denbora berean, finantzamendu plan bat finkatzeko balio dezake ere.

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

Horrela, lurralde diagnostiko baten eta euskal kulturaren aldeko kultura politika publiko baten zehazteko laguntza eskaintzeko asmoz, topaketa batzu antolatuta izan dira ondoko herri-elkargoetako kultura Lehendakari eta Lehendakariordeekin :

- Pays de Soule- Xiberua herri-elkargoa
- Garazi-Baigorriko herri-elkargoa
- Amikuzeko herri-elkargoa
- Bidaxuneko herri-elkargoa
- Nive-Adour herri elkargoa
- Hazparneko Lurraldeko herri-elkargoa
- Errobi herri-elkargoa
- Hego Lapurdiko herri-elkargoa

## ➤ **Kontseilu orokorraren eskaerak**

Pirinio Atlantikoeko Kontseilu orokorrak hitzarmen bat izenpetu du Euskal Kultur erakundearekin, helburutzat daukana euskal kultura kontutan hartua izan dadin berak kultura politika eramaiterakoan, alhan ezartzen dituen eskema eta parte-hartze araudietan.

Hitzarmen hau 2012ko apirilaren 20ko Batzorde iraunkorrean onartua izan da, eta Euskal kultur erakundeari, AMO lan ardatz hauek finkatuak izan zaizkio :

- Xiberoko eta Hazparneko herri-elkargoen sostengatzea, lurralde garapen kontratuen arraberritzerakoan ;
- Departamenduaren laguntzea, erakaskuntza kulturalen eta artistikoen eskemak bidean ezartzeko ;
- Departamenduaren laguntzea , kultura ondare biziaren politika finkatzeko ;
- Arra-norabideratu euskarazko kultura proiektuen sostengatze araudiak, euskal dantzari leku berezi bat emanez ;
- Departamenduaren laguntzea, ikusgarritzari buruzko eskemen ebaluaketan eta arraberritzean.

2012an, EKE-k lan egin du lehen ardatzari buruz (lurralde garapen kontratuen arraberritzean).

Azpimarratu behar da obragintzalariak (hemen Kontseilu orokorrak) duela EKE-ri AMO eskaera egiten, bera lan ardatz ezberdinetan aitzinatu arau.



# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

## Ikertu

### ➤ Lurraldeko kultura egitasmo bat eraiki Errobiko herri-elkargoarendako

2011n, herriarteko lankidetzaren departamendu eskema berriak gaitasun berri batzu herri-elkargoetara eramatea eskatzen zuela ikusirik, Errobi herri-elkargoa gaitasun berri batzu hala nola kulturarena hartu ala ez, gogoetetzen hasi zen. Konzientzia hartze hori lotua da bidean dagoen lurralde bilakaerarekin, bereziki Frantzia mailan, gero eta gehiago, herri-elkargoek kultura gaitasuna hartzen duten honetan. Halere, kultura gaitasuna hartzeak ez du erran nahi herrien lana ordezkatzeko dela: herriaren eta herri-elkargoaren arteko banaketa ez da beti erraza. Lurraldeko kultura proiektuak kuadro hori mugatu behar du.

Ondorioz, misioa Euskal kultur erakundeari emana izan zaio, Filgi Claverie-rekin proposamen amankomun bat egin dezaten. Euskal kulturaren sustapenean berezitu izanik, EKE alor horretan mugatu da eta Filgi Claverie Errobi herri-elkargoan finkatu kontsultore – formatzaileak bere gaitasuna ekarri du, lurraldeko kulturantzatasuna kontutan hartzen duen erantzun baten emateko asmoz.

Errobiko herri-elkargoaren lurralde proiektuaren zehaztea ez da ekintza soil bat izan. Lurralde garapen baten dinamikan inplikatu kultura politika baten asmatzean eta animatzean gogoetatzea eragin du ere. Epe luzean, proiektu honek, Errobi lurraldearen erakargarritasuna hobetu behar luke, sozial eta lurralde kohesioaren ezinbesteko erronkari erantzuten dioten ber.

Misioaren helburu nagusiak hauek ziren :

- Kultura demokratisazioa
- Lurralde berdintasuna, garapen ekonomiko eta sozial sortzaile eta iraunkor batekin
- Kultura lurraldearen babestea, baloratzea eta zabaltzea, besteak beste tokiko kultura kontutan hartuz
- Bizi ingurumenaren hobetzea

Helburu operatiboak hauek ziren :

- Kultura mailatzea erraztea, lurraldeko kultura alorreko alde azkarrak eta ahuleziak ikertuz
- Jadanik direnetaz aparte, kultura ekipamendu osagarriak sortu behar diren ala ez ikertzea
- “Harri Xuri” programa lurralde osora hedatu behar den ala ez aztertzea
- Diren eta izanen diren ekipamenduen arteko osagarritasuna eta beren arteko elkarlana bermatzea

Orain, herri-elkargoari dagokio ikerketako aholkuetaz iritzia ematea.

Lurralde egitasmoaren aztertzerakoan, bi ibilbide nagusi proposatuak izan zaizkie hautetsiei : Errobi aldeko kultura egoera aurkeztua izan da eta ondotik, hautetsiek eztabadatu dute, proposamen zehatzak egin aitzin.

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

Horretarako, Mirentxu Amestoy andereak ikerketa kuantitatibo bat – oroz gainera Euskal kultur erakundeko datubasean oinarriturik – egin du, Errobi aldeko lehen kultura argazki bat eskaintzen duena. Horri datzikola, lurralde horretako hautetsi, administralari, bainan ere elkarte, konpainia eta artista anitz elkarrizketatuak izan dira.

Kultura egoera hori begiratu ondoan, ekintza norabideak proposatu ditugu, lurralde garapena indartuko duen kultura politikaren eraikitze eta ondotik konkretuki obratzeko.

Epe ertainera, egitasmo honek Errobi lurraldearekiko erakargarritasuna sakonduko du, bai eta ere sozial kohesioa gorpuztuko.

## ➤ **Ikusgarrigintzaren eta euskal literaturaren diagnostiko bat egin herri-elkargo mailan**

AMO misioarekin, elkargoak Euskal kultur erakundearen ikerketa lanean oinarritzen ahal dira, euskal kultura alorreko kultura politika publikoak osatzeko orduan.

« Luzarako ikuspegi » horretan elkargoekin engaiatua izanik, eta lurralde bakoitzeko nahikeriak, beharrak, hots errealitatea ongi ulertzeko, EKEren lehentasuna izan da lurralde bakoitzean euskal kulturaren argazki baten egitea, tokiko eragileen partaidetzarekin. Hori dela eta, herri-elkargoei euskal kulturari buruzko galdeketa orokor bat eta beste bat euskal dantzaz igorriak izan zaizkie.

Lau herri-elkargok erantzun dute :

- Xiberoko herri-elkargoak
- Hazparneko Lurraldeko herri-elkargoak
- Amikuzeko herri-elkargoa
- Bidaxuneko herri-elkargoa

Emaizetatik abiatuz, datuen azterketa sakon bat egin izanen da.

## ➤ **Dantza programa baten antolatzea**

Programa plan horren aurkezpena, Claire Rousier-ek dantzari buruz egin eta Estatuak – DRAC-aren bitartez -, Akitaniako Eskualdeko Kontseiluak eta Pirinio Atlantikoetako Kontseilu orokorrak manatu ikerketaren ondotik heldu da.

Ikerketa horren ondoren, Iparraldeko Dantzarien Biltzarrekin elkarlanean, EKEk euskal dantzaren inguruko batzorde bat osatu du. Denetan, dantza munduko berrogei bat pertsonak parte hartu dute batzorde horretan. Batzordea azpi-batzordeetan banatua izan da, ikerketan agertzen diren aholkuen arabera :

- Ondarea
- Formakuntza
- Sorkuntza / hedapena

Batzordeak proposamenak egin dizkio batzorde eragileari eta Claire Rousier-en aholkuak baieztatu, findu edo zuzendu ditu, beti arrangura berarekin : euskal dantzak dituen beharren arabera aterabide bideragarriak proposatzea.

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

Programa plan hau lehen aipatu hiru instituzioei eskainia izan zaie, euskal dantzari buruzko lehentasunak adosteko balioko duten elkarrizketen elikatzeko. Epe motz, ertain eta luzera, programa plan honi esker, euskal dantzak kultura politika publikoetan hobeki agertu behar luke eta alor artistiko honi dagozkion problematikak kontutan hartuak izan beharko lukete – Claire Rousier-en txostenaren ildotik. Baina batez ere, planak ekintza konkretuetan gauzatua izan beharko du.

Planak aholkatzen dituen politika publiko ezberdinen obratzeak eta mobilisazio aldaketa nabarmenek – hala nola formakuntza sailan adibidez – « dantzaren maila hobea bat » eta « dantza taldeendako « baldintza hobea » » ekarri beharko dituzte epe motz, ertain eta luzera. Azkenik, programa plan honek partaide ezberdinen ekintzen ikusgarritasun hobea eman nahi du.

Hemendik goiti, DRAC-ak, Akitaniako Eskualdeko Kontseiluak, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu orokorrak, IDB-ek eta EKE-k osatzen duten Batzorde eragileak bere iritzia eman behar du aholku horietaz. Bestalde, diru engaiamenduak finkatu eta epe luzerako ekintzen programa bat osatu behar du, partaide bakoitza bere gaitasunen arabera inplikatu delarik

## Partaidetza eraketa

### ➤ Kultura programazioen osaketa lagundu

#### ▣ Baiona

Euskal kultur erakundeak eta Baionako Hiriak 2010eko maiatzan izenpetutako elkarlan hitzarmenaren kariatara, euskal kulturaren presentzia segurtatuko da Baionako besten garaian eta beste ekitaldi batzuen kariatara. Hala nola, euskal musikaren inguruan zombait ekitaldi antolatutako izan dira besten garaian eta XILABA txapelketa aintzin.

#### **Kontzertu atipikoak Baionako besten denboran**

- **Uztailaren 23a – Herriko etxean**  
Maddi Sarasua bertsolariak pesten idekitzea bertsotan
- **Uztailaren 27an (La Collégiale elizan)**  
"Bi eskusoinulari, bekoz-beko" , Philippe de Ezcurra eta Aitor Furundarena eskusoinulari famatuekin gaurko eta atzoko euskal musikan bidaia bat
- **Uztailaren 28an (Templo protestantean)**  
Txalaparta/Txirula/euskal kantuakren arteko topaketa :  
Ttipia et Txomin (txalaparta), Argitxu Esain (kantua), Mixel Etxekopar (txirula).

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

## XILABA lehiaketaren aintzin gusto gisa, Bertsularitza hobeki ezagutzeko ekitaldiak

Aurten, Bertsolarien Lagunak elkarteak antolatzen duen XILABA bertsularitza txapelketa Baionan iragan da azaroaren 10ean. Aintzin gusto gisa, Bertsolarien Lagunak, EKE eta Baionako Hiriak bertsularitza hobeto ezagutzeko aukera eman nahi izan dio publiko zabalari.

- **Azaroaren 7an, Kalostrape ostatuan:**  
Asier Altunaren "Bertsolari" filmaren aurkezpena
- **Azaroaren 9an, Baionako Mediatekan:**  
Xabi Payaren mintzaldia « Bertsularitzaz... » eta « Ikuska 18 » dokumentalaren proiektzioa (Xabier Amuriza bertsularitzaz hitz egiten - Bertan Filmak - A. Ezeiza)
- **Azaroaren 10an, Baionako bisita euskaraz**  
Lucien Etxezaharretarekin eta bi bertsulariekin (Ortzi Murua eta Aitor Servier)

## ▣ Euskal kultura & turismoa

Bigarren urtearentzat, Euskal kultur erakundea CCAS erakundearen aholkularia da, Euskal Herrian dituen zentro ezberdinetan (Hendaia, Garazi, Angelu,...) euskal kulturaren ezagutarazteko udatiarrei.

Hainbat ekimen obratuak izan dira 2012garren urtean, hala nola :

Txalaparta taillerrak (F3C elkarte) – uztailaren 13 eta 27a ; agorrilaren 6 eta 15a ;

Donibane Lohizuneko portuaren bisita (Christian Ondicola) : uztailaren 10 eta 18a ; agorrilaren 9, 16 eta 22a ;

Euskal mitologia (Claude Labat) : agorrilaren 3 eta 16a ;

Euskara eta euskal kultura (Pantxoia Etchegoin) : uztailaren 12a ; agorrilaren 10a ;

« Itsasturiak » erakusketaren bisita (Terexa lekumberri) : uztailaren 18 eta 31a ; agorrilaren 2a

## ▣ Angelu

\* "Hitzaren arteak" festibalean :

**Itxaro Borda eta Serge Mauhourat**

Ekainaren 11n, 20:30etan, Angeluko Barojako karpapean, gaskoiera eta euskara gurutzatu dira Itxaro Bordaren eta Serge Mauhourat okzitaniar ipuin-kontalariaren arteko topaketari esker. Euskal kultur erakundeak proposatu gualdi hau Angeluko hiriak antolatu "Hitzaren arteak" festibala kari muntatua izan da.

Lehenik, Itxaro Bordak "Ogella Line" ("Ogella" Ispaster herriko hondartza baten izena da) deitu poesiak irakurri ditu, Mylène Charrier (ahotsa), Kako Cavalié (guembri, kontrabaxua) eta Pierre Thibaud (perkusoak / saxoa)- en laguntzarekin.

Bigarren partean, Serge Mauhourat kondalari eta kantariak ipuinen mundu miresgarrian sarrarazi gaitu.

\* « Alboka tropik », Alemaniako Ansbach hirian animazio bat egin du.

Euskal kultur erakundea, Angeluko hiriaren partaide izan da ekintza hortan.

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

## ▣ Donibane Lohizune : Euskal kultura argitan

Donibane Lohizunen, 2012 urteko programazioa Herri Ixilean erakusketaren inguruan hasi da. Orotara 700 bat bisitari bildu ditu Jon Cazenave donostiarraren argazki erakusketak. Bisita gidatuetan, aldi oro berrogei pertsona hurbildu dira.

- Urtarrilaren 13tik martxoaren 4era Rotonde gelan : Jon Cazenave argazkilaria Herri Ixilean erakusketa.
- Otsailaren 4a : Hartza Eguna kari : Thierry Truffaut-ren mintzaldia : Hartzaren presentzia eta garrantzia Europa zaharrean.
- Martxoaren 9a : Daniel Landartekin gaualdi literarioa: idazle topaketa « Ahularen Indarra » liburuaren inguruan eta bi antzezlariren irakurketekin.
- Maiatzaren 4a : Pastoralari buruzko mintzaldia Ravel Aretoa (bi zatitan : « Euskal emigrazio Hego Ameriketara » Euskal Argentina elkartearen Monika Legartoren eskutik, « 2012ko Arrokiagako Pastoralari: José Mendiague » Jean Bordaxar bere egilearen eskutik).

## ▣ Hendaia – Abbadia Behatoki Jauregia : « Kaperan A Kapela » zikloa

Bederatzigarren urtearentzat Abbadia Behatoki Jauregiak Kaperan A Kapela zikloari bere ateak idekiko dizkio. Euskal kultur erakundeak, Hendaia herriak eta Hendaye Tourisme elkarteak antolatutako ziklo horrentzat bi kontzertu proposatuak izan dira udaberrian (apirilaren 14an eta maiatzaren 12an) eta beste bi udazkenean (irailaren 22an eta urriaren 13an). Irailaren 22ko kontzertua arrazoin teknikoaren gatik ezeztatua izan da.

- Apirilaren 14a, larunbata : Beñat Achiary-ri oholza idekia – Julen Achiary (perkusioak) eta Mathieu Lebrun-ek (Saxofonoa) lagundurik
- Maiatzaren 22a, larunbata : Izarrak eta Erramun Martkorena
- Irailaren 17a, larunbata: ezeztatua
- Urriaren 13a, larunbata : Bordaxar Laukotea

## ▣ Biarritz – Euskara Bulegoarekin partaidetza

2007ko uztailaz geroztik, Euskara Bulegoa hizkuntz politikaren aplikatzeaz arduratzen da Biarritzeko lurraldean. 2012an, Bulegoa EKEren gana etorri zen (beste partaide batzuekin batera : EEP, Ikastolen elkartea) euskarazko aisialdi eta ekitaldi kulturalen balorizazioa egingo lituzkeen tresnen eraikitze . Lurraldeaz eta eragile kulturaletaz duen ezagutzari esker, EKEk, bere baliabide iturri funtzioa bete ahal izan du eta laguntza bat ekarri du katalogo baten eraikitze (aholkularitza). *Euskarazko jardueren pedagogikoen katalogoa*, erakasleei zuzendua den tresna, 2012ko azaroan atera zen. Epe labur batean, bigarren euskarri batek lehena osatuko du, aldi hontan gurasoei zuzendua.

Bestalde, Euskara Bulegoak Mediatekaren programazio kulturala lantzeko bilkura teknikoetan parte hartzen du baita ere.

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

## ▣ Bidarte – Euskal Bide Arteak zikloa (EBA)

Bidarteko herriak, Uhabia ikastola elkarteak eta Euskal kultur erakundearen partaidetzarekin, Euskal Bide Arteak festibalaren seigarren edizioa aurkezten du.

Haurrendako emanaldiak, dantza, kantua, mintzaldiak, kondairak, kontzetuak, jokoak, ... ekitaldi guzi hauek egitaraua osatze dute.

- Apirilaren 12a, ostegunetik  
Eskolendako emanaldia frantsesez  
Elhina eta Lamina  
Euskal Herriko laminak, lurpeko andere maitagarriak... ipuinaldia frantsesez, Koldo Amestoy.
- Apirilaren 13a, ostiralek  
Eskolendako emanaldiak euskaraz  
Elhina eta Lamina : Euskal Herriko laminak, lurpeko andere maitagarriak... Koldo Amestoy-en ipuinaldia  
Kokolobatxi emanaldia Tokia Théâtre konpainiaren eskutik  
18h : Mintzaldia : « Emazteak Euskal Herrian » Marikita Tambourin idazle eta etnologoaren eskutik.  
21h : Aneta Bokaleko - Koldo Amestoy, kontaketa eta Pantxix Bidart, kantu eta musikan
- Apirilaren 14a, larunbatek  
ESKU JOKOAK liburu-diskaren inguruan tailerra Oihana Esquirol Picabearen eskutik (1eta 6 urteen arteko haurrentzat) ; Bidarteko Mediatekan  
11:00 : Bidarten kantuz eskolentako hurrekin kantatzen. Herriko Etxearen plaza  
14:00etatik 18:00ak arte : Patxi Perez-ekin dantza ikastaldia (Teilarin) Uhabia ikastola elkarteak antolatuturik. Bil Tokin  
14:30etarik goiti : Ohiko euskal jokoak, Gaia elkarteak proposaturik.  
18:30tan : Uhabia Ikastolako haurren abestiak. Herriko etxearen plazan.  
19:00 : Dantza Piko Patxi Perez-ek animaturik. Herriko etxearen plazan.  
21:00etan : Euskal abesbatzen kontzertua Eguzki Lore eta Barkatu Bartok taldeekin *Bidarteko Elizan*

## ▣ Maule – Liburu Azoka - Martxoaren 17an, larunbatek

Mauleko hiriak bere zerbitzu kulturalaren bidez, bere lehen liburu azoka antolatu nahi izan du 2012an. EKEk eskukaldi bat eman dio antolakuntzan (argitaletxeekin harremanak) eta ekitaldia sustengatu du Pastoralari buruzko mintzaldi bat aurkeztuz :

Pastoralari buruzko mintzaldia bi zatitan : « Euskal emigratio Hego Ameriketara » Euskal Argentina elkarteko Monika Legartoren eskutik - « 2012ko Arrokiagako Pastoralari: José Mendiague » Jean Bordaxar egilearen eskutik

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

## MUGAZGAINEN HARREMANAK

### Kultura egitasmoen garatzeko laguntza

Urteak joan, urteak jin, Euskal kultur erakundea egiazko baliabide iturri bilakatu da, tokiko edo kanpoko kolektibitateentzat, aholkularitza artistikoa ekarriz ; urrunago ere badoa egitura horiek kultura programa eraikitzen laguntzen dituelarik.

Horrela, hainbat gertakari sortu dira, nola iparraldean, hala hegoaldean.

#### Ikusgarritzari sostengua

Euskal antzerkiaren garapena aldeko programazioaren laguntza hirugarren urtez, ekitaldi guziak Luhusoko Harri Xuri gelan gertatu dira.

Hedapenari laguntza « Harri Xuri euskaraz ! » ekitaldiaren kari :

- Hika teatroa – « Aitarekin bidaian » : martxoak 10
- Metrokoadroka kolektiboa – « Herio heroi » : martxoak 11
- Markeliñe : “Hareazko ipuinak” Azaroak 3

Egonaldiari laguntza :

Hortzmuga konpania – “Ez zuten nik ikusitakoa kontatu” – martxoaren 20tik apirilaren 4ra : egonaldiaren harrera, programatzaileentzat lan arkezpen bat (martxoak 29).

Artedrama - « Publikoari gorroto » - urriaren 8tik azaroaren 1era : egonaldiaren harrera, ikastetxeendako tailerrak eta ikusgarria, estreinaldi publikoa (azaroak 1).

Sivom ARTZAMEDIren partaidetzan.

Hedapena eta sorkuntza,

Laguntza artista eta konpainiei :

- « Gure bide galduak » (2 ikusgarri Cie DEBAJU)
- « Kokolo batxi » (5 ikusgarri Cie TOKIA)
- « Artea » (2 ikusgarri Cie DANTZAZ)

Sorkuntza

Laguntza GARAZTARRAK elkarteari, « Kontrapas » ikusgarriarentzat.

Ahozko ondarearen transmisioa

Zaharrei zuzendua : « Gure denborako kantuak » (J.C. Irigoyen & Erramun Negueloua).

Baxenabarreko lurralde eszenatokiarekin partaidetzan

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

## ▣ « *Iparra galdu gabe* » - Getxoko hiria

Euskal Kultur Erakundeak 10 urte baino gehiago daramatza harremanetan Getxoko Udalarekin eta harreman horretatik sortu dira IPARRA GALDU GABE bezalako programak. Bi urtez behin egiten den IPARRA GALDU GABE programak Ipar Euskal Herria Getxon ezagutzera emateko jarduerak antolatzea du helburu. Aurtengo programak HITZA du ardatz: Oskar Alegria zinegileak ekoiztu *Hitz enea* argazki erakusketak Iparraldeko eta Getxoko etxeen izenekin bidaiatxoa egitea proposatzen digu, bai eta ere lau bertsulariei hitzen inguruko bertsuen emateko aukera...

*Oroitzen naiz* dokumentalak Iparraldeko adineko hiru dantzari ospetsuri ematen die hitza (Koldo zabala, Philippe Oyhaburu, Jean Nesprias), dantzaren maitez lekukotasun hunkigarriak eskaintzen dituztela, Mizel Théret dantzariak kudeatu izen bereko dantza sorkuntzan.

*Emak Bakia* filmak ere hitz bat, Biarritzeko etxe baten izena du abiapuntua, eta Oskar Alegriak Man Rayek 1926an egin zine-poemaren filma eredutzat hartu du.

## ▣ Donostia - Koldo Mitxelena kulturunea - « Iparraldea Bertan ! » 11. edizioa

- Martxoaren 7<sup>a</sup>, asteazkena 19:30etan | KONTZERTUA  
Philippe de EZCURRA, Marina BEHERETCHE eta Kattalin INDABURU
- Martxoaren 14a, asteazkena 19 :30etan | KONTZERTUA  
Maddi ZUBELDIA eta bere musikariak (Xano Urtxegi eta Txomin Arizaga)
- Martxoaren 21a, asteazkena 19 :30etan | KONTZERTUA : Gazte eszena  
Iparraldeko talendu berrien gaualdia: BEGIZ BEGI eta IZARRAK taldeekin
- Martxoaren 28a, asteazkena 19:30etan | MINTZALDIA  
Mintzaldi-Elgarrizketa : Iparraldea garapen bidean ...  
Hizlaria : Battitta BOLOQUY, Garapen Kontseiluko zuzendaria  
Galdezkatzailea : Franck DOLOSOR, telebistako kazetaria

## ▣ Donostia Kulturaren eta Euskal Kultur Erakundearen arteko 2012-2014 Lankidetzaren hitzarmenaren berriak

Joan den 2012ko martxoaren 21ean Donostiako Herriko Etxean, Pantxoa Etxegoin, Euskal Kultur Erakundearen zuzendariak eta Nerea Txapartegui, Donostiako Udaleko Kultura eta Euskara ordezkariak izenpetu eta berri egin dute bi egituren arteko Lankidetzaren Hitzarmena ondoko hiru urteentzat.

Urteko ekitaldiak :

- Chimères antzerki taldearen egonaldiaren antolaketa “Otso” haur antzerkia prestatzeko 2013an, Donostiako kultur zentroetan;
- “Kantuketan” erakusketaren instalazioa Intxaurrenoko kultur etxean – Maiatzaren 7tik 31ra;
- “Beste aldekoak” - Inprobisaturiko ipuinak eta ilustrazioak ikusgarriaren hedapena, Peio Etxekopar eta Asisko Urmenetarekin. Ekainak 1, Donostiako Intxaurrenoko auzoan / maiatzak 25, Altza auzoan / maiatzak 19, Donostiako Igeldo auzoan;



# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

## ▣ Euskal Herriko programatzaileen lehen topaketa – Baionako Euskal museoan 2012ko urriaren 18an

Euskal kultur erakundeak eta Les Translatines antzerki festibalak, SAREA-ren partaidetzarekin (*Euskal Autonomia Erkidegoko Antzokien Sarea*), gonbidatu dituzte lehen aldiz iparraldean ipar eta hego Euskal Herriko programatzaileen topaketetara. Gertakari hori urriaren 18an iragan da, Baionako Euskal Museoan, *Les Translatines* Festibalaren kariatara.

Lehenik Euskal kultur erakundeak eta SAREAK beren misioak eta Ikusgarrigintzarako dituzten tresna egituratzaileak aurkeztu dituzte.

Ondotik gai hauek aipatuak izan dira :

"Hogeit'a" eta "Zubi" ekimenak,  
SAREAK gomendatu ikusgarrien katalogo berria,  
Gai askeak.

Arratsaldean Donostiako Atejoka konpainiaren "**Biolin magikoa**" haur ikusgarria aurkeztua izan da Les Découvertes aretoan. Sorkuntza hau, Euskal kultur erakundeak eta Baionako eta Akitania-hegoaldeko Eszena Nazionalak Ikusgarrigintza alorrean elkarrekin antolatu Hogeit'a deialdiko irabazle bat da.

Orotara, 40 arduradun politiko, Jaurilaritza teknikaria eta programatzaile hurbildu dira :

Les Translatines Antzerki festibalaren partetik:

- Jean Marie Broucaret, Jaialdiaren Zuzendaria
- Marie-Hélène Estecahandy, produkzio laguntzailea
- Marie-Julienne Hingant, administraria

EKE-Euskal Kulturaren partetik:

- Pantxoa Etchegoin, EKE-ko Zuzendaria
- Frank Suarez, EKE-ko Ikusgarrigintza Zerbitzu Burua
- Fred Berruet, EKE-ko web atariko arduraduna

Iparraldeko programatzaileak:

- Antton Lannes, Euskal Herria Zuzenean (Hazparne)
- Cécile Pellarini, Karakoil Production (Mugerre)
- Christelle Mange, Service culturel de Mauléon / Mauleko kultura zerbitzua (Maule-Lextarre)
- Didier Rey, Accords (Kanbo)
- Isabelle Henry, Traboules (Heleta)
- Josy Lavoy, Tokia théâtre (Maule-Lextarre)
- Laurence Delay, Hendaiko kultura zerbitzua
- Liliane Corbineau, Foyer des jeunes de Bardos (Bardoze)
- Maika Laborde, Scène de Pays : Kultura Bidean - Sur les Chemins de la culture (Urruña)
- Mathieu Vivier, Scène Nationale Bayonne-Sud-Aquitain (Baiona)
- Muriel Etchenic, Biarritz Culture (Biarritz)

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

SAREA- Euskal Antzoki Sarearen partetik:

- Mikel Toral, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaria
- Mikel Extebarria, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkaria
- Frantxi López, Giouzkoako Foru Aldundiko ordezkaria
- Lide Arana, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkaria
- Jose Luis Ibarzabal, Eusko Jaurlaritzako teknikaria
- Amagoia Garaizabal, Arrigorriagako programatzailea
- Amaia Olano, Lugaritzeko programatzailea
- Ana López, Leioako programatzailea
- Angel Asensio, Barakaldo Antzokiko programatzailea
- Arantza Arrazola, Durangoko programatzailea
- Garbiñe Agirre, Andoaingo programatzailea
- Gerardo Ayo, Basauriko programatzailea
- Goio Uriarte, Hondarribiko programatzailea
- Gurutze Sukia, Beasaingo programatzailea
- Mikel Zumarraga, Beasaingo Kultura Zinegotzia
- Inma Miguel, Aretxabaletako programatzailea
- Iñaki Larrañaga, Elorrioko programatzailea
- Iñaki Salaberria, Donostia Kulturako antzerki proiektuen teknikaria
- Javier García, Irungo programatzailea
- Jesus Arrizabalaga, Azkoitiko programatzailea
- Jokin Ansorena, Tolosako programatzailea
- Jon Garai, Arrasateko programatzailea
- Jose Luis González, Eibarko Coliseo Antzokiko programatzailea
- Juan Ortega, SAREAko Batzorde Artistikoko kidea
- Luisja Ugarte, Zornotzako programatzailea
- Marga Olabarrieta, Santurtziko programatzailearen izenean
- Marian Alonso, Galdakaoko programatzailea
- Miriam Romatet, Zumaiako Programatzailea
- Olatz Azkue, Zarauzko programatzailea
- Gari Berasaluze, Zarauzko Kultura Zinegotzia
- Patxi Lopez, Ermuako programatzailea
- Seve Alava, Berrizeko programatzailea
- Nekane Basterretxea, Idazkaritza Teknikoaren Koordinatzailea, idazkari lanetan

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

## ➤ Lurralde marka

Badu orain hilabete andana bat EKE bermatzen dela *Euskal Herria* Lurralde Marka baten xutik ezartzen, lehenagotik eta 2012ko abendua arte, Baionako Merkataritza Ganberak beregain hartua zuelarik haren kudeaketa.

EKEk beraz obralaritzako anitz bilkuretan parte hartu du eta bereziki « Komunikazio » taldean, delako Marka enpresei eta publiko zabalari ezagutarazteko erabili behar diren urratsak behar bezala finkatzeko.

EKEk, bere aldetik, proposamenak egin ditu euskal kulturaren sarrarazteko Lurralde Marka horretan. Alabaina, EKEk nahi luke, Lurralde Marka horri esker euskal kultura beste manera batez ikusia izan dadin. Orain arte, euskal kultura, gehienetan, itxura folkloriko batez erakutsia baita, erreki « saltzeko » xedearekin, eta beraz, axaleko hura baizik ez erakutsiz, dauzkan aberastasunak maiz ukatuak baitzaizkio.

Lurralde Marka horretan sartuko den kide bakoitzak zuhurki jokatu beharko du euskal kulturaren zinezko itxura gaurkotu baten hedatzeko, bai Euskal Herrian berean, bai hemendik kanpo. Lurralde Marka horren kide bilakatuko den egiturak, faltarik gabe, lau engaiamendu hauek errespetatu beharko ditu, besteak beste, hemen agertzen ditugun ahalbide hauek obratuz :

### ■ Lehen engaiamendua : Euskal Herriko bitzita kulturalaz eta artistikoaz argibideak ematea :

Horretarako, EKEko Agendarekin lotura egiten ahalko du ([www.eke.org](http://www.eke.org)), agenda hori asko eta asko xehetasunen iturria baita.

Enpresak bere bezeroak (klientak) kultura ekimenei buruz gidatzen ahalko ditu EKEk eskaini aholkuak baliatuz.

### ■ Bigarren engaiamendua : Euskal kulturaren anbaxadore bilakatzea

Enpresak bere langileen esku ezarriko ditu EKEk bere internet sarean euskal kulturaren hobeki ezagutarazteko agertzen dituen txostenak, gai desberdinak aipatuz...

Enpresak, bere langileei errextasunak utziko dizkie, EKEk antolatu egun erdiko formakuntzak segitzeko.

### ■ Hirugarren engaiamendua : Euskal kulturaren sostengatzea

Enpresak diruz laguntzen ahalko du euskal kultura bultzatzen duen elkarte bat.

Enpresak diruz laguntzen ahalko ditu eskolak, euskal ikuskizunetara joateko.

Enpresak, bere nahiaren arabera, artistak eta edota sorkuntza artistiko desberdinak diruztatzen ahalko ditu.

Enpresak euskal artistak laguntzen ahalko ditu, Euskal Herritik kanpo antolatzen diren topaketetan eta feria handietan parte hartzen.

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

## ■ Laugarren engaiamendua : Ekintza ekonomiko bakoitzeko ekarpen kulturala argitan ezartzea

Enpresak, bere lana eta ekoizpenak kokatuko ditu lurraldearekin lotura eginez, haren historiarekin, haren ondarearekin eta haren kultura bizidunarekin, eta hori adieraziko du zabalduko dituen mezu desberdinetan.

Ofizioen eta Euskal Herriko nortasunaren arteko loturak egituratzeko, enpresak, bere sarekoekin, formakuntzak antolatzen ahalko ditu, tokiko elkarteekin, EKEREkin edo beste.

EKE izan dadin euskal kulturaren baliabide iturri bat ontzat jotzen dute nola Lurralde Markako obralaritzako kideek hala bertaratuko diren enpresa kideek.

EKEk aholkuak eman beharko dizkie eta ekintzen koordinaketa segurtatu, horrek erran nahi baitu lana emendatuko zaiola.

Lurralde Marka egituraren eta EKEn artean hitzarmen bat izenpetu beharko da, bakoitzaren eginbeharrak ongi finkatuz.

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

## ➤ Dantza alorreko Heziketa Artistikoa eta Kulturala

Euskal kultur erakundeak gutzizatzen du eskola denboran, 8 eta 15 urte arteko haur eta nerabeek, hezkuntza artistiko eta kultural programa batzuen bidez euskal kulturako ekai batzuk bereganatu ditzaten.

EKEren izenean, Estelle Carricondo andereak ikerlan bat eraman zuen 2011an, lehenbiziko epe batean Errobi aldean mugatua, euskal kulturaren transmititzeko irakasleek nolako beharrak dituzten jakiteko.

Ikerlan haren arabera proiektu baten xedea atera da, arte eta kultura hezkuntzaren bitartez obratu behar dena : euskal kultura eskolako programetan onartua izan dadin (Arteen Historia sailean) baita ere arartekotasunari esker artista egonaldiak, sorkuntzak, hedapenak antolatuak izan daitezten. Horretarako, euskal kulturari lotu formakuntza bereziak prestatu behar dira irakasleek tresna pedagogikoak ukan ditzaten beren irakasleei proposatzeko.

EKEk bilkura andana bat antolatu du partaide hauekin : CDDP, Ikas pedagogia zerbitzua, P.-A.ko Ikuskaritza Akademikoa, Bordeleko Erretoretza, eta irakasleak. Bilkura horiek eginak izan dira Garapen Kontseiluarekin adosean, hark baitu kudeatzen Euskal Herria 2020 lurralde proiektuaren barnean « Euskal Herria irakatsi » saila.

Lehenbiziko ekintza 2012ko urriaren 24ean obratua izan zen, formakuntzaren izenburua hauxe zelarik : *“Euskal dantzaren eguna. Dantza, Arteen Historian sarbide bat”*. Antolatzaileak ziren : P.-A. Departamenduko CDDP eta EKE, partaide zirela : Maurice-Ravel kontserbatorioa, P.-A.ko Departamenduko DSDEN, IDB euskal dantza federazioa eta Bordeleko Erretoretza.

Ama-eskolatik eta lizeo arteko irakasleei zabaldua, orotara hirurogeita hamar irakasle elkartu ziren eta gai hauek gogoetatu ziren : Nola praktikatu dantza hezkuntza fisikoan eta kirolan, baina ere nola integratu beste irakasgaietan : nola mintzatzen da dantzaz historia-geografian ? Arte plastikoetan ? Matematiketan ? Soziologian ?

Arteen Historiaren bidez egiten ahal diren urrats batzuk:

- Irakasleei eman euskal dantzaren inguruan eraman gogoeta historikoen eta pedagogikoen berri;
- Irakasleei euskal dantzaren maila orotan irakasteko giltza didaktiko eta pedagogiko batzuk proposatu,
- Dantza praktikatu hobeki kontzientzia hartzeko ikasleei beharrezkoa zaiela giltza horien ukaitea.

Hiru mintzaldi izan ziren, hizlari hauekin : Elisabeth Lecussant, Jon Iruretagoyena eta Cathy Berterreix.

Hiru tailer ere antolatuak izan ziren:

- Jantziak eta euskal dantzak;
- Musikak eta euskal dantzak
- Desafiozko dantzak : makil dantza berri baten asmatzea.

Formakuntza eguna preziatu zutela aitortzen zuten bai ikasleek bai mintzalariek, aiantzi gabe proiektuaren eramaileen artean giro sano bat sortu zela.

Esperientzia hori erreberritua izanen da 2013an, eta irakasleek eta aholkulari pedagogikoek lehenbiziko euskarriak apailatuko dituzte EKEekin partaidetzan.

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

## ➤ Irakurketa publikoa

### ▣ Biarritzeko Mediateka : Lehen hitzarmen izenpedura Mediateka batekin

Azken urte hauetan EKE eta Biarritzeko Mediateka elkar lanean ari badira ere, bi egiturek lehen aldikoz 2012an partaidetza hitzarmen bat izenpetu dute. Egina den lanaren irakurketa hobea, administratiboki errestasunak, elkar lana egituratua izan da kuadro honen bidez (baita partaideekin eramana dena AEK, Euskara Bulegoa, Eusko Ikaskuntza). Hitzarmen hau urtero arraberritua izanen da. Horra 2012ko programazioa :

- Urtarrilaren 26a, osteguna : « Lau Kantari » liburua eta dokumentalaren inguruko topaketa Juan Gorostidi (idazle eta dokumentalaren egilea) eta Beñat Achiaryrekin (« Lau kantari »etatik bat dena)
- Otsailaren 25a, larunbata : ELEKA konpainiaren emanaldi/ ipuinaldia : « Hau dela, hori dela »
- Martxoaren 3a, larunbata : Haurrendako tailerra ESKU JOKOAK liburu diskaren inguruan Oihana ESQUIROL PICABEA
- Apirilaren 30a, larunbata : Idazle aurkezpena Daniel Landart-ekin « Ahularren indarra » bere azken liburuz : irakurketak bi antzerkilariren eskutik.
- Maiatzaren 26a, larunbata : Peio Jorajuria « Otalazt » Irakurketa klubaren gomita, Gazteluma 2012 saria eskuratu du « Jaun Martin » obrarentzat
- Abuztuaren 2tik 25era : Hogeita erakusketaren instalazioa : Arte Bisualetan iragan deialdiaren bi irabazleek, Bertrand DEZOTEUX (« Txerriteka ») eta Nader KOOCHAKI (« Scènes ») beren bideo instalazioak hilabete batez aurkeztu dituzte (erakusketaren bisitak, tailerrak, publikoarekin topaketak).

Bestalde, Eusko Ikaskuntzak proposaturiko hainbat mintzaldi aurkeztuak izan dira (Eric Dichary, Jean François Larronde)...

### ▣ Baionako mediateka : “Irakur” zikloa

2012 urtean, EKEren eta Baionako Mediatekaren arteko lehen elkarlana abiatu da. Baionako hiriarekin 2010ean izenpetu duen partaidetza hitzarmenaren ildoak segituz, EKE, hiriko egitura ezberdinekin harremanak garatzeari lotu da (Euskal Museoa, Mediateka). Baikorki erantzun dio beraz Mediatekaren eskaerari, eta urri osoan iragaiten den IRAKUR ! zikloaren partaide bilakatu da. Programazio aberats eta ainitza proposatu dute partaide ezberdinek, haurrendako ekitaldiak, topaketa literarioak baita profesionalendako egun bat proposatuz.

- Urriaren 10a eta 24an : « Pello eta Otsoa », irakurketak 5-10 urteko haurrentzat
- Urriaren 11an : Euskarazko Irakurketaren inguruko profesionalendako eguna (ik. « BDParekin partaidetza)
- Urriaren 12an : Euskal Rock Gauda, Salda Badago dokumentalaren aurkezpena eta Baionako Roni taldearen kontzertua
- Urriaren 19an : Gazteluma sariaren inguruko topaketa : Sariaren istorio, sorkuntza literarioaren inguruko gogetak, idazle saridunekin topaketa, ...
- Urriaren 20an : Haurrendako tailerra « Esku Jokoak » liburu diskaren inguruan Oihana Esquirol Picabearen eskutik.
- Urriaren 23an : Aingeru Epalzarekin idazle topaketa
- Urriaren 25an : « Lau Kantari » liburua eta dokumentalaren inguruko topaketa Juan Gorostidirekin (idazle eta dokumentalaren egilea)
- Urriaren 26an : « Gartxot Eguna ». Goizean filmaren aurkezpena Atalante zinegelan lizeoetako ikasleentzat eta topaketa Asisko Urmenetarekin (marraskilaria). Arratsaldean, mediatekan topaketa Asisko Urmenetarekin Gartxot komikiaren inguruan. Amaren Alabak taldearen kontzertu berezia eta ondotik musikaldia karriketan zehar mediatekatik Atalante zinegelaraino Itzalzuko Gathübi taldearekin. Bukatzeko Atalanten gaualdia : Gartxoten aurkezpena eta ondotik topaketa-solasaldia egileekin : Asisko Urmeneta, Juan Jo Elordi (filmegilea) et Edorta Barruetabeña (gidoilaria). Gaualdia Gathübi taldeak alaiturik bukatu da.

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

## ▣ Amikuzeko Mediateka (Donapaleu) : noiztenkako ekitaldien segipena

Aurten ere, EKEk, Amikuzeko Mediatekarekin duen partaidetza segitu du. EKEk, Amikuzeko Mediatekak eta Zabalik elkarteak duela urte batzuk hasi zuten elkarlan bat, euskarazko irakurketaren inguruko ekitaldien programazioarentzat. Alabaina, Mediatekari emana zaion aurrekonduak (ekintza kulturalentzat), ekintza gutti antolatzeko aukera ematen du. Amikuzeko herri elkargoarekin Euskarazko Irakurketa Publiko politika lantzeko aukerak hutsune horri erantzun baten emateko parada emango lioke.

- Apirilaren 14a, larunbata : Idazle topaketa Daniel Landart-ekin Ahularen Indarra bere azken liburuari buruz, bi aktoreek lagundurik liburuaren pasarteen irakurkentangat.
- Maiatzaren 23a, larunbatez : « Euskararen Urtaroa » zokloaren barnean : Hiro Otso emanaldiaren programazioa. Ipuinaldia, Ikas pedagogia zerbitzuak argitaratutako trilogian oinarritua, musikak lagundurik. Irakurketa : Amaia Henebutte Millard – Eskusoinua : Jesus Aured – Gitarra : Arnaud Estor.
- Irailaren 21a, ostiralez : Mediatekaren 10 urteentzat : Itxaro Bordarekin idazle topaketa (euskarazko literatura, bere obra)...

## ▣ Donibane Lohizuneko Mediateka

2012ko urte bukaeran iragan lehen topaketa batek elkarlan xede baten baseak pausatu ditu. Hala nola, bi egiturek euskarazko irakurketaren inguruko ekintzak eramateko asmo hori, 2013 urtearen lehen hilabeteetan gauzatuko da.

## ▣ Hazparneko Mediateka

Lehen harremanak hartuak izan dira eta 2013an lehen ekintzak antolatuak izanen dira.

## ▣ Departamenduko Mailegu Liburutegiarekin (BDP – Bibliothèque Départementale de Prêt 64) partaidetzaren garatzea : 2 egun profesionalen ko-antolaketa 2012 : Duangoko azokaren bisita eta IRAKUR ! egun profesionala

2011 abiatutako partaideitza EKE eta BDP aren artean, 2012 urtean garatu da. 2011 urte bukeran, bi egiturek, Durangoko Azokaren bisita profesional bat proposatu zuten. Egun hori, lurraldeko mediateka/liburutegietako langileei zuzendua (baina baita ere, irakurketa klubekoak, laguntzaileak, ...), euskarazko irakurketaren problematikari lotua zena, arrakastatsua izan zen. Esperientzia urtero berriz proposatzea erabaki zuten bi egiturek. Helburu orokorra berdina egon da, erran nahi bait du Euskal Herriko (Iparraldeko eta Hegoaldeko) argitalpenaren ezagupen hobeago bat eskaini eta bereziki euskarazko argitalpenarena.

Bi egituren arteko partaidetza ez da hortan gelditu : bigarren topaketa profesional bat antolatua izan da aldi hontan Baionako Mediatekarekin partaidetzan. IRAKUR ! zikloaren (euskarazko irakurketa sustatzen duen zikloa) programazioa profesionalendako egun batekin osatu du.

Otsailaren 11an beraz, euskarazko argitalpeneri lotuak diren profesionalendako topaketa egun bat antolatua izan da Baionako Mediatekan (liburutegi/mediatekako langile, argitaletxeko kide, ...). Parte hartzaileak hauek izan dira : Euskarazko argitalpenari lotuak diren egiturak, lurraldeko liburutegi/mediateketako langileak, irakurketa klubak, laguntzaileak, dokumentalistak, ...)

# 1. Kultura politika publikoen laguntzea

## Egunaren egitaraua :

Goizean, argitaletxeek beren egiturak eta argitalpenen edo berritasunen katalogoak aurkeztu dituzte beste partaideei : parte hartu duten argitaletxeak : Gatuzain, Maiatz, Elkar, Ikas pedagogia zerbitzua, Astobelarra. Solasaldi momentu batek segitu ditu aurkezpenak.

Arratsaldeari dagokionez, misio karguduna den Marie Andrée Ouret-ek, « Euskal dokumentu fondoaren inbentarioa eta balorazioa » egitasmoaren aurkezpen bat egin du. Horrez gain, Baionako Meditatekako langileek Ondare eta Gazte Zerbitzuen bisita gidatu bat proposatu dute.

Eguna bukatzeko, mahain inguru bat antolatua izan da "Euskarazko irakurketaren garatzeko baliabideak eta aterabideak" gaiaren inguruan, Peio Etcheverry-Ainchart moderatzailearekin. (« Brain storming », diagnostika, problematika amankomunen definitzea, baliabideen deklinazioa, ...)

Topaketa hortan, euskarazko irakurketaren inguruko egiatzko sare baten beharra nabarmendu da. Eragileen arteko topaketa momentuak gutti dira eta horren beharrean dira. EKEn baliabide iturri errola hor ere argitan emana izan da. Antzeko beste hitz ordu batzu proposatuak izanen dira 2013n (edo gai batzuen inguruan deklinatuak).

## **▣ Kontseilu Orokorra (BDP) / EEP / EKE-ren arteko elkarlana : « Euskal Funtsen inbentarioa eta balorazioa » egitasmoari buruzko bilkura teknikoaren antolaketa.**

Ondare mailan garrantzia handikoak, euskal dokumentuen fondoak egitura eta toki ezberdinetan sakabanatuak dira (liburutegi, herriko mediateka, unibertsitateko liburutegi, departamenduko artxibategi, museo, dokumentazio zentro, liburutegi pribatu, erligio fondoak, BNF ... Tratamendu homogenorik gabe, ezagupenik gabe, eskuragarritasunik ez dute ikasle, ikerle edo publiko zabalarentzat.

Euskal fondo hauen egituratze eta baloratze egitasmo amankomun baten inguruan bildu dira lurraldeko eragile ezberdinak, eta proiektu hori Euskal herriko 2007-2013 Lurralde kontratuan erantsia izan da. Baionako Hiriak (egitasmoaren eramaile dena), misio kargudun bat hartu du egitasmo honen eramateko 2010ko urriaz geroztik.

Egitasmo honen xedea, Euskal fondo guzien inbentario baten eramatea da : hala nola, liburuak, aldizkariak, artxiboak, mapak, argazkiak, eskuizkribuak, soinu eta ikus-entzunezko grabaketak.

Helburua nagusia, publikoari altxor honen eskuragarritasuna ematea atari numeriko baten bidez. Aukera izanen da :

- Kontserbatze gune eta eskuragarriak diren egituren identifikatzea (eta publikoari jakinaraztea)
- katalogo ezberdinetan bilaketak eramateko tresna bat proposatzea
- fondoak balorizatzea : liburutegi numeriko, erakusketa birtualak, argazki galeria, ...

Egitasmo honen lehen fasean (2010ko urria – 2012ko apirila ) fondoak identifikatuak izan dira, multzo garrantzitsuak katalogo batean sartuak izan dira, fondo hauen arduradun edo jabeen sare bat muntatua izan da eta azkenik Pastorelei buruzko numerizatze lana abiatu da.



## 1. Kultura politika publikoen laguntzea

2012ko apirilaz geroztik, Euskal Fondon egitasmoa 2. fasean sartu da. Nagusiki fase hortan, fondoak publiko zabalari eskuragarri bilakatuko duen atari numerikoaren eraikitzea izan da.

Sare numeriko horren bidez, profesionalen arteko egiazko sare bat martxan emanen da, lan kolektibo baten ideiarekin: balorazioa eta osatzea haiekin egingen baita: ataria eguneratu, politika amankomunak definitu fondoaren eraketentzat, elkarlana balorazio ekintzetan ...

2012an zehar, Kontseilu Orokorra BDParekin, Euskararen Erakunde Publikoa (EEP), eta EKEk egitasmoaren segida edo etorkizuna prestatzeko bilkura teknikoak antolatu dituzte: hala nola oraindik pentsatu Irakurketa Publiko politika bat ekintza kulturalen bidez balorazioarentzat eta bestalde, eragile ezberdinen formakuntza (euskal kulturaren ezagutza, euskara ikasi, ...) Lan horrek 2013an segituko du.

## 2. “Hogeita” : euskal kulturaren biziberritzeko ekintzak

### **Ipar Euskal Herriko artxibo soinudunak balorizatu**

Badu orai urte andana bat tokiko irratiek, elkarteek eta pertsona pribatuek ahozko artxiboak ekoizten eta biltzen dituztela. Interes handiko ondarea euskal kulturaren transmisioan: kantu, musika, euskal antzerki, ipuin, bertsu, lekukotasun, etabar.

Baina denek dakigu desagertzeko irriskutan direla eta hauen salbatzeko ez baldin bada neurririk hartzen. Zorionez gaurregun, teknologia berriei eta bereziki numerizazioari esker, ahozko artxiboen euskarriak modu iraunkorrago batean kontserbazioa eta balorizazioa ahalegiten dute.

*Oharra: Frantziak numerizazio plan bat abiatu du 1996an, bere jabegoan dauden irudi eta soinu fondoak numerizatzeko, 2000az geroz hedatu duena eskualdeko kolektibitateko, bai eta kultur eta zientzia elkarten fondoei.*

#### **Ipar Euskal Herriko artxibo soinudunak**

Bere lurraldean numerizazio plan xedea gauzatzeko, Pirineo-Atlantikoetako departamenduak galdegin dio 2009an Euskal kultur erakundeari Ipar Euskal Herriko ahozko artxiboen zerrendatzea (elkarte, irradi, pertsona pribatu), Biarno eskualdean InOc-ek egin behar izan duen bezala. Orotara 20.000 ordu kondatu dira, horietan 12.000 Ipar Euskal Herriko eremuan.

Salbatze eta balorizatze programa horren baitan, departamenduak numerizazioa bere gain hartzen du, Ipar Euskal Herriko fondoak tratamendu intelektuala Euskal kultur erakundeari emanaz (tratamendu artxibistikoa eta indexazioa, datubaseak sortuz) Kontseilu orokorreko, eta bereziki departamenduko artxibo zerbitzuaren obragintzapean.

2012an, Euskal kultur erakundeak 500 ordu inguru tratatu ditu:

- Belokeko monastegiko fondoak, (argitaratuak ez diren 20 ordu)
- Irulegiko irratiafondoko 480 ordu.

## 2. “Hogeita” : euskal kulturaren biziberritzeko ekintzak

### Eleketa programaren jarraipena

2007tik hona, Euskal kultur erakundeak adinetako jendeen lekukotasunak biltzen ditu hanbat arloetan dauzkaten oroitza-penak harrotuz : lan, jakitate eta lanbide desberdinak, erritoak, baserritar eta arrantzale bizimoduak, zapatagintzaren eta espartingintzaren historia, gertakari garrantzitsuak etabar.

Amikuzen abiatu zen bilketa, emeki emeki Nafarroa-Beherea guziari hedatu da, bai eta ere Lapurdi eta Zuberoari. 2009tik hona, Euskal Herriko Hitzarmen Bereziak dirustaten du eta Kontseilu Orokorrek bere obragintza pean hartzen.

2012an iragan den lekukotasun bilketa beste hanbat lanez segitua izan da :

- lekukotasunak numerizatzea, sekuenziatan ematea, eta muntaketa egitea
- Informazio guziak tratatzea Arkhēia artxiboen kudeaketarako logizielari esker, eta datubasetan sailkatzea.

2012 urtean 35 lekukotasun berri bildu dira, 171 zirelarik eginik abendoan.

Gai berezi batzu landu dira 2012an, batzorde zientifikoak erabakirik :

- dantzak (pastoraletakoak eta maskaradetakoak barne),
- Aturri inguruko bizia eta ekonomia,
- Zapatagintza eta espartingintza.

### Euskal kulturaren eta ondarearen hedapena

Bi egun erdi formakuntza segurtatu ditu Euskal kultur erakundeak laborantxan plantatzekotan diren gazte batzueri, bat euskal kantuari buruz, bestea euskal etxeari buruz .

Bi egun erdi formakuntza emanak izan dira ere Seaskako erakasle gaiari, bat ondareari buruz orokorki, bestea euskal etxeari buruz.

### Ondare ez materiala

Kontseilu Orokorrek ondare ez materialaren sailan abiatu duen lana (Eleketa programaren obragina da 2009tik hona) indartu nahi luke ondoko urteetan eta zinezko politika publiko bati buruzko urratsak eman. Euskal Kultur erakundeari eskatu dio gogoeta horretan lagun dezan. 2012an, Euskal kultur erakundea hasi da gai horri buruz gogoetatzen, eta denbora berean ohartzen euskal kulturaren zutabea zela. Alabainan, ondare ez materiala aipatzen denean, ahozkotasanaren eta kultur- sozial arloetako praktiketarik hara, euskaldunak mugiarazten dituzten baloreetaz ari gara. Balore horiek zein diren zilatzea, duten eraginaren neurtzea eta eztabadatzea, EKE-ren ekimenean eta kultura politika publikoen zedarri izan ditenean, hori da abiatu den lana eta ondoko urtean jarraituko dena. Egitasmoaren kudeatzeko, batzorde eragile bat osatzen hasi da 2012an, indartuko dena 2013an (besteak beste ondarearen munduko jendei idekiz).

## 2. “Hogeita” : euskal kulturaren biziberritzeko ekintzak

Gogoeta honek etengabea bilakatu nahi lukeenez, epe luzarako helburua litzateke batzorde iraunkor baten sortzea, kultura eta ondarea arloetako aktoreak bil litzakeenak, gizartean pil pil diren gaiak eztabadatzeko eta kultura publikoak norabideratzeko.

Batzorde honek EKE-ko ondarearen batzordearen lana egin lezake (gogoeta bat abiatua zuen honek 2011an bere geroari buruz- ikus jazko txosten morala), abiadura eta idekidura berri bat emanez eta hain beharrezkoa den ondarearen eta kulturaren arteko lotura behin betikotz finkatuz.

Ondare ez materialari buruzko gogoeta honi zedarri sendoak eman arte, nahitara lotan egon da Ondarearen Batzordea 2012an, nahiz eta segitu duen halere ordezkari bat segurtatzen Akitaniako eta departamenduko batzorde hauetan :

- Ederguneen eta Ondarearen Akitaniako Batzordean,
- Baliozko Objektuen Departamenduko Batzordean,
- CAUE-ko Administrazio Kontseiluan.

## 2. "Hogeita" : euskal kulturaren biziberritzeko ekintzak

### Hogei'ta

"Hogei'ta" ekintza labelak gazteak lagundu nahi ditu euskal kultura bere aniztasunean baloratuko duten proiektu berritzaileak asmatzen.

Euskal kultur erakundeak gazteen kultura dinamiken erakusle diren sorkuntza eta adierazpide artistiko eta trukaketa esparruak lagundu nahi ditu "Hogei'ta" programaren bidez. Paraleloki, epe ertain eta luzerako, EKEk gogoeta bat abiatu nahi du bere partaideekin, ondarearen transmisiorako tresna iraunkorren sortzeari buruz.

"Hogei'ta" programa bi publiko motari zuzentzen da:

#### > 8-15 urte arteko haurrak eta nerabeak

Haurrentzat, hautaturiko ekintzek euskal kultur nortasuna osatzen duten osagaien transmisioari lehentasuna ematen diote, sorkuntza saila baztertu gabe, haatik.

#### > 16 urtez goitikako gazteak

Gazteentzat, mota guzietako sorkuntzek lehentasuna ukanen dute, eta euskal kulturaren alor batzu berrasmatzen ala berritzen dituzten egitasmo berritzaileen eragile izateko ahalak eskainiko zaizkie.

### Hogei'ta Ikusgarrigintza proiektu deialdia

Hogei'ta labelaren kari, Euskal kultur erakundea eta Baiona Akitania Hegoaldeko Eszena nazionala elkartu dira, egitasmo artistikoetarako deialdi baten abian ezartzeko, antzerkiaren, dantzaren eta zirkoaren alorretan.

#### Irabazleak

Hogei'ta Ikusgarrigintza » proiektu deialdiak Akitaniako, Euskadiko edota Nafarroako artisten edo artista kolektiboen 10 proposamen bildu ditu, antzerkiaren, dantza garaikidearen bai eta zirko eta karrika arteen alorretan. Proposamenen maila altuak epaimahaiaren hautaketa zaildu baldin badu ere, eztabaida oren batzuen ondoren, bi irabazle hautatuak izan dira :

- **Atejoka antzerki taldea** (Donostia), hurrei zuzendu «*Biolin magikoa*» proiektuarentzat;
- **Unai Lopez de Armentia-k, Garazi Lopez de Armentia-k, Hannad Whelan-ek eta David Alcorta Ruiz-ek osatu kolektiboa** (Gasteiz) «*Hautsa*» deituriko keinu antzerki eta dantza garaikide proiektuarentzat.

Irabazle bakoitzak diru laguntza bat eskuratuko du bere proiektuaren obratzeko. Bestalde bakoitzak jarraipen berezia ukanen du sorkuntzaren garapenerako.

Urriaren 18an, Donostiako Atejoka antzerki taldeak hurrei zuzendu «*Biolin magikoa*» sorkuntza estreinatu egin du Biarritzeko Les Découvertes aretoan eskola publikoari baita ere Ipar eta Hegoaldeko 40 bat programatzaileeri, EKEk antolatu jardunaldi profesional baten kari Festival Les Translatines eta Sarearekin partaidetzan.

## 2. "Hogeita" : euskal kulturaren biziberritzeko ekintzak

"Hautsa" sorkuntza Baionako teatroan aurkeztua izanen da 2013ko azaroaren 5ean. Aitzin, Gasteizen aurtengo apirilaren 23an, artistek heien sorkuntza-lanaren etapa batzu Akitania, Ipar eta hego aldeko programatzaileari aurkeztuko ditu.

"Hautsa" ekoizpenerako ondoko ekoizleak engaiatu dira EKEren egoitzan izandako topaketa baten ondotik: Donostia Kultura, Office Public de la Région Aquitaine, Baiona Akitania Hegoaldeko Eszena nazionala eta EKE.

### Hogeita Arte bisualak – Saridunen obren hedapena

2011n Euskal kultur erakundearen *Hogeita* programaren barnean antolatu Arte Bisualen inguruko deialdiaren saridunen obrak egitura batzuk Bertrand Dezoteux-en "Txerri" eta Nader Koochaki-ren "Scènes" obrak aterpetu dituzte, EKEren laguntzarekin :

#### "Txerri"

- Le Carré - Frédéric Bastiat - Baiona 2011-12-07 / 2012-01-15
- Centre Pompidou - Forum -1 - Parise "Le silences des bêtes" erakusketa 2012-01-27 / 2012-02-12 (artistaren sareari esker)
- Biarritzeko Mediateka 2012-08-01 - 2012-08-25
- Rekalde Aretoa - Bilbo 2012-08-28 - 2012-09-30

#### "Scènes"

- Euskal museoa - Baiona 2011-12-07 / 2012-01-15
- Biarritzeko Mediateka 2012-08-01 - 2012-08-25

### Euskal berrikuntza artistikoaren 24 orduak

Urriaren 19an eta 20an, lehen aldikoz, Hogeita labelaren barnean, Euskal kultur erakundeak partaidetza bat egin du Bidarteko Estia injeneritza eskolarekin, "berrikuntzaren 24 orduen" barnean, alor artistikoa sarrarazteko, lehiaketa arte bisualen eta euskal literaturaren eremuetan kokatuz. Zazpi artistek beren izena eman zuten, hauen artean grafistak, argazkilariak, margolariak eta idazleak, azken hauetako batek Txekiatik bidali duelarik bere lana.

Eginbeharra ximple bezain gogorra zen : 24 orduz ttanko obra edo idazlan baten sortzea, gai honen inguruan : Artea/Teknologia/lurraldea, eta euskarri bezala, ordenagailurako sagu bat.

Epaimahaia osatu dutenak ziren : Maiana Agorrody, Baionako Space Junk arte zentrokoa, Irati Burgues, Bilboko Sarea arkitekturako arkitektoa, Christiane Giraud, eskultorea, Daniel Landart idazlea, eta Pantxoa Etchegoin, Euskal kultur erakundeko zuzendaria.

## 2. “Hogeita” : euskal kulturaren biziberritzeko ekintzak

Epaimahaiak kriterio hauek finkatu ditu sariak emaiterakoan : lanaren kalitatea, berrikuntza, hizkuntza artistikoa, eta gaiarekilako koherentzia. Hautaketa zaila izan arren, orokorrean ikusiz obren kalitatea, Euskal kultur erakundeak eskaini dituen hiru sariak banatuak izan dira larunbatean, ekitaldi ofizialean, Estia eskolan, arratsaldeko 18ak inguruan:

- Lehen saria (300 euro) : **MariJoxe AZURTZA**, Donostiarra, idatzi duen « Artearen lurraldea » ipuinarentzat ;
- Bigarren saria (200 euro) : **Serena LUTTON**, bere grafismo lanarentzat ;
- Hirugarren saria (100 euro) : **Julien GOUL**, bere margo lanarentzat.

Beste parte-hartzaileek ere opariak ukan dituzte, egin duten lanaren sariztatzeko.

Laster, bi partaideek datorren urteko ekitaldiaren garapena landuko dute, lehen ekitaldi batentzat, kausitze ederra izan baita aurtengoa.

### Abbadiako eremuan idazle egonaldia : Ekhiñe Egiguren

Euskal kultur erakundeak, “Hogeita” labelaren barnean, Euskal Idazleen Elkarteak, eta Euskal Itsasbaterreko IAEZIK literatura egonaldi bat antolatu dute, euskal literaturaren sorkuntza bultzatzeko, oroz gainera idazle gazteak gomitatuz idaztera. Kalitate oneko lau egitasmo eskuratu dira, eta azkenean, Ekhiñe Egiguren hautatua izan da. Donostian sortua da 1978an, arkitektoa da lanbidez bainan denbora anitz iragaiten du, idazten eta irakurtzen. Bere idazketa egonaldia 2012ko urriaren 1etik azaroaren 4a arte iraganen da.

Oroz gainera Ekhiñe Egigurenek poesiak idazten ditu. Hamalau urteetan irabazi zuen bere lehen literatura saria eta geroztik beste hainbat lortu ditu, gehienak poesia lanentzat (Koldo Michelena, Urruzuno sariak, Pasaiaiko poesia lehiaketa, etabar).

Hain zuzen, Hendaiaiko egonaldi honetan, Anton Abbadie zientzialariak bultzatu zituen Lore jokoetarik abiatuz, pieza poetikoak sortuko ditu, autorearen sormenari lotuak, pentsamendu eta hausnarketa pertsonalak izanen direnak.

Idazketa egonaldia Hendaiaiko Abbadia Eremuan, « Nekatoenea » deitzen den etxean iraganen da 2012ko urriaren 1etik azaroaren 4a arte. (hilabete batez). Apartamendu bat eta ahalbide teknikoak idazlearen preskizian ezarriak izanen dira.

Obra egina izanen delarik, idazleak kolegioko eta lizeoetako ikasleekin topaketak egingen ditu 2013an, edukinaren aipatzeko, halaber bere idazle ibilbidea.

### « Irudimena » : testu eta irudi sormen lehiaketa

Euskal kultur erakundeak eta Bilboko Azkue Fundazioak sareko « Irudimena » sormen lehiaketa antolatu dute bigarren aldikotz 2012ko martxoaren 15etik maiatzaren 15era. Lehiaketa honen helburua euskal kulturaren inguruko sormen literarioa eta grafikoa bultzatzea zen gazteen artean. Argazki batean oinarrituz (gaian, estetikan...) parte hartzaileek testu bat edo irudi bat asmatu behar zuten. 61 egilek ekoiztutako 99 obra eskuratu dituzte antolatzaileek. Sariak ekitaldi ofizial baten kariatara emanak izan dira Bilbon, ekainaren 9an.

Emaitza eta sorkuntza guztiak sarean dira: [www.irudimena.com](http://www.irudimena.com).

## 2. “Hogeita” : euskal kulturaren biziberritzeko ekintzak

### « Hitzaditza » : diktaketa euskaraz

Euskal kultur erakundeak eta AEK federazioak, zazpigarren « Hitzaditza » diktaketa antolatu dute, maiatzaren 5an, Baionako IUTn.

Hiru maila proposatuak izan dira : 13 eta 16 urte arteko gazteak, euskara ikasten duten helduak eta euskaldun trebeak. 2010 urteaz geroztik, diktaketarako testuak, Baionako Bernat Etxepare lizeoko ikasleek idatzi dituzte « Dantza » gaiaren inguruan. Laurogei bat testuen artean 3 hautatuak izan dira :

- « Egingo al duzu dantza ? » Maddi Ane Txoperena
- « Dantzari Normala » Ibai Etcheagoimberri
- « Dantza » Paola Ibañez

Testuak, Yvonne Arrossa, Kattalin Sallaberry eta Gaxuxa Elhorga-Dargains andereek irakurri dituzte.

Hitzaditza.com bloga ere arraberritua izan da eta gehigarri batzuek sartuak izan dira : Grabaketak eta ariketak entrenatzeko, ...

Irabazleek, sari ederrak irabazi dituzte (e-book delakoak, ikusgarrien/festibalendako sartzeak).

### “Effets miroirs” / “Barne mirailak”

Euskal kultur erakundea, *Hogeita* labelaren babesean, egitasmo honen partaidea da. Baionako Euskal museoa eta Baionako hiria obragintzalariak direlarik, zuzendaritza artistikoa Cécile Julien kantari eta musikariak segurtatzen du.

Egitasmo honek helburutzat dauka 10 eta 30 urte arteko gazteek Baionako euskal museoko ekai ezberdinetarik (kolekzioak, gai tematikoak, ...) abiatu eta, sorkuntza artistiko batzuen bideratzea, bereziki musikaren, arte plastikoaren, edo oraino arte bisualen inguruan. Gazte hauek eskola edo elkarte publiko bezain pribatuetarik etortzen dira, hala nola Garazi, Baigorri, Kanbo, Hazparne, Angelu, Biarritze, Baiona, Donostia eta Oiartzunetik.

Ikasturte guzian antolatuak izan diren tailerretarik, ekoizpen artistikoak begibistan ezarriak izanen dira, 2013ko urtean, Baionako Euskal museon.

Euskal kultur erakundeak Cécile Julien artista lagundu du, formakuntza/sorkuntzarako egin duen lanarentzat. Lan horien elementu artistiko zenbait Euskal kultur erakundeko webgunean sartuak izanen dira, *Hogeita* plataforman.



### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

## ELKARTEEI ETA ARTISTEEI ZUZENDU FORMAKUNTZAK

Elkarteei eta artisteei buruzko formakuntzak.

Formakuntza guziak dohainik izan dira.

Kultura aktoreek arazoak edireiten dituzte beren eguneroko ibilmoldean eta behar bereziak badituzte formakuntza alorrean.

Euskal kultur erakundeak erabaki du laguntza zehatzak ekartzea sail horretan, eta ondorioz, formakuntza plangintza bat alhan ezarri du, DLA deitu dispositiboaren babesean.

**Huna Euskal kultur erakundeak proposatu formakuntza, DLA Aquitaine erakundearekin partaidetzan :**

- **« Kontabilitatearen eta elkarten kudeaketaren oinarriak »**

Elkarte bizia laguntzeko asmoz, Euskal kultur erakundeak eta DLA tokiko laguntza dispositiboak kontabilitatearen eta kudeaketaren inguruko sentsibilizazio / formakuntza bat antolatzen dute.

2012ko ekainaren 16an, larunbatez

Tokia : Uztaritzeko Lapurdi gela

Informazio gaualdi horren partehartzaileak : 19

Helburuak :

- ✓ Nolako kontabilitate mota aplikatu ?
- ✓ Zertarako ukan emaitza-kontua eta egoera balantzea ? Nola egin horien sinpleki idazteko ?
- ✓ Zeintzu dira nire partaideen eskakizunak ?
- ✓ Zer dira nire aktibitatean balia ditzakedan tresna sinpleak ?

- **« Nola kudea bilkura bat eraginkortasunez ? »**

2012ko irailaren 27an, ostegunez

Tokia : Uztaritzeko Lapurdi gela

Informazio gaualdi horren partehartzaileak : 23

Formakuntzaren eramailea :

Alain SARTHOU jauna, Tolosako CREPS erakundearen komunikazio misio karguduna.

Helburuak :

- ✓ Komunikazioaren oinarrizko elementuak,
- ✓ Bilkuraren parte-hartzaileen espresio desberdinak eta haien ezaugarriak,
- ✓ Bilkura baten eramaitea nola erdietsi ?, derrigorrezko elementuak, bere berezitasunak eta bere garrantzizko funtzioak.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

- **“Kultura proiektu bat landu, eraiki eta bere ebaluaketa egin”** jarraitze kolektiboa  
Maiatzaren 21etik uztailaren 9ra  
Formakuntzaren eramailea : Mireille Courdeau anderea (Phosphoros kabinetea)

Helburuak :

- ✓ oinarrizko nozioak
- ✓ tresna operatiboak
- ✓ Kasu konkretuen azterketa
- ✓ Helburua, elkarteak laguntzea da beren kultura egitasmoa lantzen.

Iraupena : 2 egun denek elkarrekin

Egun erdi bat elkarte bakoitzarentzat lan pertsonalizatua egiteko

Egun bat emaitzak denen artean partekatzeko.

Hots, 3.5 egun egitura bakoitzarentzat

Parte-hartzaileen zerrenda :

Hendaiako CPIE Littoral basque, Baionako Compagnie les lézards qui bougent, Bardozoko Gaztetxea, Uztaritzeko Herri Soinu, Senpereko Martxuka, Azkaingo Elirale, Baionako Gatuzain, Lekuineko Lagunarte, Uztaritzeko Biklun eta Iparkor.

#### Relais Culture Europe erakundearekin partaidetzan

- **« Europa eta Kultura : nolako erronkak , nolako perspektibak ? »**  
Informazioak eta eztabaida

2012ko maiatzaren 10ean

Baionako Merkataritza Ganbaran – « Jacqué » gelan

Formatzailearen eramailea : Pascal Brunet

40 pertsonak formakuntzan parte hartu dute.

Egitaraua :

- ✓ 2014-2020rako Europako Erkidegoaren programazioaren erronken eta perspektiben aurkezpena,
- ✓ Lan tailerrak,
- ✓ Elkarrizketa kolektiboa.

Bestalde, Donostiako kultur eragileekin bilkura bat antolatua izan da maiatzaren 11n, mugaz gaindiko kultur proiektueri buruz.

Bestalde, EKEk artistak eta elkarteak hurbiletik segitzen ditu topaketa eta bilkuren bidez. Aurten, 1002 bilkuretan parte hartu du.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### SORKUNTZA PROFESIONALEERI SOSTENGUA

##### ● « OTSO »

###### *Théâtre des Chimères elkarte*

« Otso » ikusgarriaren sorkuntza artistikoari laguntza, « Hiru xerri ttipi », “Otsoa, axeria, ahuntzak” eta “Otso gosetua” testuak oinarritzat hartuz.

Talde artistikoa : Amaia Hennebutte, testoa eta adaptazioa, Hervé Estebeteguy, taula zuzendaritza, Lierni Fresnedo eta Txomin Heguy, antzerkilariak, Jesus Aured, konpositorea eta esku soinu joilea, Arnaud Estor, gitarista eta kantaria, Luca Eno Trimaldi, Fanny Millard eta Lontxo Yriarte, margolariak, Annie Onchalo - maskak, Sophie Bancon, jantziak.

##### ● « BEGI BLUE »

###### *ZTK elkarte*

Euskal diskografia laborari laguntza sailean, « Begi blue » deitu diskoaren ekoizpena. Amaia Hennebutte-n testu eta margoetan oinarritua.

Publikoa : 8 – 11 urtekoentzat.

##### ● « ANIMALIEN IHAUTERIA »

###### *ZTK elkarte*

Camille Saint-Saëns-en ihauterietan oinarritua den ikuskizun baten sortzea.

Francis Blanche-n testoak eta Claude Pieplu-ren interpretazioa.

Euskarazko emanaldia : Labèque ahizpak eta Txomin Héguy antzerkilariaren parte hartzearekin.

Publiko zabalarentzat.

##### ● « ZUN »

###### *Lagunarte elkarte*

« Zun », ikusgarria sortua izan da Herri Uzta festibalakari. Partehartzaileak : Cléo Mamet eta Jose Cazaubon (dantza eta mugimendua), Kristof Hiriart (musika eta zuzendaritza), Paxkal Indo (suak, argiak), Patrick Fisher (soinua). Pantxika Telleriaren aholku artistikoak.

« Makila » oinarritzat hartuz sortu emanaldia, urriaren 13an Luhuson aurkeztua izan zen.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● « H » IKUSGARRIA

##### *Elirale konpainia elkarte*

Pieza koreografiko honek, « betetzen gaituzten hutsuneetaz » galdezkatzen du eta bakoitzaren gizatasunari buruzko gogoeta bat ekartzen. Amaia Hennebutte Millard (« Himalayajavakaputadiziburrina ») eta Ur Apalategiren (« Beste Bizitza ») testuetan oinarritzen da.

Publikoa : 7 urtetik goiti, 45 minutuko iraupena. Malandain Ballet Biarritz estudietan hasirik, sorkuntzaren aurkezpena Temps d'aimer dantza festibal kari egin zen, « Découvertes » aretoan, irailaren 15ean. Hirugarren ziklko ikasleentzat sensibilisazio tailerrak egin ziren euskaraz eta frantsesez (Amaia Hennebutte Millard-en eskutik).

- Dantzariak : Arantxa Lannes eta Jose Cazaubon
- Antzerkilaria : Joxelu Berasategi
- Musika : Kristof Iriart (ahotsaren lana eta soinua)
- Koreografia : Pantxika Telleria eta Célia Thomas (Koreografo laguntzailea)
- Eszenografia : Philippe Chaix
- Jantziak : Maialen Maritxalar.

#### ● « DANTZA HIRIAN 2012 »

##### *Aterpean elkarte*

##### « Aterpean » artista egonaldiaren 5. edizioaren laguntza

Bigarren urtea da 2 konpainia hautatuak direla Aterpean programarentzat:

Anakrusa konpainia (Donostia) : “Insitu” sorkuntzarentzat. Noemí Viana, Eneko Gil (Kukaiko dantzaria) eta Iñigo Ortegak hiriaren sinbolo bat berenganatu dute eta dantzan eman : banku edo jarleku publikoa.

Dantza Hirian festibalan aurkeztua izan aintzin, sorkuntza Biarritzeko Maitaldian aintzin gustu gisa aurkeztua izanen da.

Androphyne konpainia (Mimizan) : Pierre Johann koreografoak Amaia Urria euskal koreografoarekin lan egin zuen bakarkako dantza baten aurkezteko « Ceci n'est pas une performance » deitua zena. Sorkuntza honek publikoarekin lotura egiten zuen (euskaraz).

Dantza Hirian festibalan aurkeztua izanen da sorkuntza hori lehen aldiz .

#### ● « OROBIL BOROBILA » SORKUNTZAREN PRESTAKETA

##### *Kiribil elkarte*

« Orobil borobila » ikusgarriarentzat sorkuntzarako laguntza.

Haurreri zuendua den ikusgarri hau haurtzaindegietan eta ikastetxetan hedatua izan da.

Euskal dantza sorkuntza, hurrentzat.

Dantza erakasleen eta ikasleen formakuntzen ondotik sortu emanaldia da, Jon eta Claude Iruetagoiena jaunena bai eta ere Nadine Goyeneche anderearen laguntzarekin prestatua.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● « SORGIN » SORKUNTZA

##### *EHZ elkarte*

##### **EHZren SORGIN programaren « BEHELAINO » antzerki sorkuntzari laguntza**

Antzerkiak "Behelaino"-ko herritarren kalapitak eta gora beherak taula gainean ematen ditu, gertakari izigarri batek mehatxatzen dituela, *Kitzikazan/k* eta *Battitta Lau ttitta* taldeetako bost antzerkilarik emanik, ekainaren 29an eta uztailaren 1ean Heletako Itsasoa kafean EHZren kari. Obraren plazaratzea segituko dute 2013an.

#### ● « ARTEAN » SORKUNTZA

##### *EHZ elkarte*

##### **EHZren ARTEAN programari laguntza**

ARTEAN programaren helburua festibaleko gunean zinezko eszenografia baten egitea da, arte plastikoen bitartez euskararen irudi moderno eta berritzailea garatuz eta hedatuz. Xedea da espazioa artistikoki eta kolektiboki marraztea festibalaren filosofia baloratuz.

## ARTISTA PROFESIONALEN ETA AMATEURS-EN SORKUNTZAK SOSTENGATZEA

#### ● « TUTA » SORKUNTZA

##### *Herri Soinu elkarte*

##### **« Burrunkarrika » kaleko emanaldiaren sortzea**

Burrunka gaita eta perkusio taldeak 12 dantzarekin sortu duen kaleko emankizuna. Ibilaldi moduan proposatzen duena. Sorkuntza hortan dantza tradizionala eta gaurkoa nahasten dira. Sorkuntzaren aurkezpena Hartzaro festibala denboran.

#### ● « RAVEL JAUNA » SORKUNTZA

##### *Etorkizuna Kontzeptuak elkarte*

Hogeita hamar bat dantzarentzat, euskal dantzari buruzko formakuntza, « Ravel Jauna » sorkuntzari begira.

Formatzaileak : Maider Oyharçabal, Bittor Coret eta Christian Larralde.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● « AINARAK » SORKUNTZA

##### *Zarena zarelako elkarte*

« Ainarak » ikusgarriaren sorkuntza: euskal dantza tradizionalen oinarritua den sorkuntza honek, XX. mende hasierako egiazko istorio bat kondatzen du: Nafarroatik eta Aragoietik emazteak etortzen zirela Mauleko espartin lantegietan lan egiteko. Emazte haiek beren herria uzten zuten, Pirineo mendi katea trebeskatzen eta azkenik parte hartu zuten Xiberoaren garapen ekonomikoan. Hogei bat dantzariak egitasmo hortan parte hartu dute. Sorkuntzaren aurkezpena: abenduaren 15 eta 16an, Luhusoko Harri Xuri gelan.

#### ● « KONTRAPAS » SORKUNTZA

##### *Garaztarrak elkarte*

« Kontrapas » dantza ikusgarriaren hedapena :

Kontrapas izeneko dantza emanaldiaren hedapena. Joselu Berasategik zuzendutako ikusgarri honek, euskal ohizko dantza, dantza garaikidea, antzerkia eta poesia nahasten ditu. Gaia bezala « Euskara » hartuz, taldekideek ohizko kultura eta modernitatearen arteko lotura dute galdezkatzen.

- Apirilaren 14 eta 15ean Izpurako Faustin Bentaberry gelan,
- Maiatzaren 27an Donibane Garazin
- Ekainaren 10an Donapaleun
- Uztailaren 5an Maulen

#### ● « ZÜEK HEBEN » SORKUNTZA

##### *Hebentik elkarte*

Lurraldeko atlas geo-poetiko baten asmatzeko, soinu eta irudi bilketa hiru urteko proiektuari laguntza. Euskal Herria zeharkatuz, Mixel Etxekopar, Pierre Vissler eta Jean-Christian Hirigoyen artistek bildu materialarekin tokietan, tokiko jendeei ikuskizunak aurkeztu dizkiete.

Lehen etapa : Pagola, 2012ko abenduaren 7 eta 8an.

#### ● « JOSE MENDIAGUE PASTORALA »

##### *Arrokiaga elkarte*

Arrokiagako Herriak “Ameriketara Euskaldunak : Jose Mendiague Pastoralak” sorkuntza egin du. Bi emanaldi izan dira Arrokiagan: uztailaren 29an eta abuztuaren 5an. (Beste bat egin zuten Hazparnen). Pastoralak, Ameriketara joan zen Jose Mendiague bertsulari handiaren bizia eta obra kondatzen zuen.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● « KOLORE, KOLORE ! » SORKUNTZA

##### *Zazpiak bat elkartea*

« Kolore Kolore ! » dantza emanaldiaren sorkuntza : « La grande histoire des couleurs » liburua oinarritzat hartuz, dantza emanaldi baten sortzea 20 bat dantzariekin (dantza taldeko kideak 6 eta 24 urte artekoak)) eta 4 haur Integrazio Batzordetik etorriak. Ohizko dantza, dantza garaikidea eta dantza integratua nahasten dira. Koloreen sinbologia segituz, desberdintasunen onartzea da pasarazi nahi den mezua. Uztailaren 6an, Sarako Lurberri gelan aurkeztua izan zen lehen aldikoz.

#### ● « AINARAK » SORKUNTZA

##### *Zarena zarelako elkartea*

« Ainarak » ikusgarriaren sorkuntza: euskal dantza tradizionalen oinarritua den sorkuntza honek, XX. mende hasierako egiak istorio bat kondatzen du: Nafarroatik eta Aragoietik Maulera espartinetan lan egiteko heldu ziren emazteen istorioa aipagai izanen da: Nola emazte hauek haien herria uzten zuten urritik apirilera, Pirineo mendi katea trebeskatzen eta azkenik nola parte hartu duten Xiberoaren garapen ekonomikoan. Hogei bat dantzari egitasmo hortan parte hartu dute. Sorkuntzaren aurkezpena: Abenduaren 15 eta 16an, Luhuson Harri Xuri gelan

#### ● « TOBERAK » SORKUNTZA

##### *Denentzat elkartea*

1937. urteaz geroz ez zen toberarik eman Irisarriko herrian.

2012an : Kabalkada eta Toberak antolatuta izan dira Irisarri, uztailaren 8an et 14ean, bai eta ere lekuko ikasleekin topaketak.

#### ● « KABALKADA 2012 » SORKUNTZA

##### *Itsasuarrak elkartea*

« Iraul'Story » kabalkada – toberaren sortzea. Aitazte dantza taldeak bultzaturik, 200 bat herritarrek kabaldada berri honen muntaketan parte hartu dute (120 dantzari, 30 antzerkilari, musikariak, jantzi josleak, bertsolariak, ...). Frantses Iraultza eta garai hartan herrian iragan gertakariak hartu dituzte gai gisa, Xabier Itzaina etnologoaren proposamenez. Beñat Lazkano itsasuarrak Toberak idatzi ditu. Itsasuko pestak kari aurkeztua abuztuaren 19an.

#### ● DANTZA SORKUNTZA

##### *Burgaintzi elkartea*

Euskal dantza sorkuntza, haurrentzat.

Dantza erakasleen eta ikasleen formakuntzen ondotik sortu emanaldia da, Iparraldeko Dantzarien Biltzarrako Jon eta Claude Iruetagoiena bai eta ere Nadine Goyeneche maisuen laguntzarekin prestatua.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

## HEDAPENARI SOSTENGUA

### ● EUSKAL DANTZA

#### *Iparraldeko dantzarien biltzarra (IDB) elkartea*

Urtean zehar euskal dantzaren inguruko ekitaldien antolaketa :

- ✓ **Ikastaldiak :**
  - urtarrilaren 14ean eta otsailaren 18an: bi ikastaro Dantzari Ttiki prestatzeko
- ✓ **Mintzaldiak :**
  - otsailaren 3a : Beñat Zintzo-Garmendia Arbonan : « Zergaitik ihauteriak ? Hartza ? Maskak ? »;
  - otsailaren 16a: Beñat Zintzo-Garmendia Baionan : « Ihauteriak Euskal Herrian »;
  - otsailaren 18a: Beñat Zintzo-Garmendia Hendaian : « Ihauteriak Euskal Herrian »;
  - martxoaren 9a : Beñat Zintzo-Garmendia Luhuson : « ohidura eta pertsonaien sinboloak euskal ihauterietan » ;
  - apirilaren 27a : Claude Iruretagoyena Hendaian : « Des habits et vous ! » ;
  - maiatzaren 18a Jon Iruretagoyena à Hendaye : « Dantzaren, maskaraden eta dantza maisuen istorioa».
- ✓ **Topaketak :**
  - Dantzari ttiki ( Hendaian, Maiatzaren 8an) azkenean eguraldiarengatik ez egina;
  - Mutxikoaren eguna (urriaren 14a)
  - Ezpalak festibala maiatzaren 25an : Eibar eta Iruñan iragaiten den mugazgandiko festibala lehen aldikoz Baionan, IDBk antolaturik.
- ✓ **Urte osoan kurtsoak :** dantza taldeetan eta eskoletan dantza eta txistu klaseak
- ✓ **Emanaldiak :**
  - Martxoaren 17an : Duguna dantza taldea Harri Xuri gelan Luhuson
  - Maiatzaren 12an : Ixtorio Mixtorio Maritzuli konpainia Harri Xuri gelan Luhuson
  - Ekainaren 17an : Sas'Oinak Zuraideko Alaiki dantza taldearen eskutik Harri Xuri gelan Luhuson
  - Abenduaren 15ean eta 16an : « Ainarak » Zarena Zarelako konpainiaren emanaldi berriaren aurkezpena



### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● BERTSULARITZAREN ALDE

##### *Bertsularien Lagunak elkarteak*

Elkarteak bultzatzen duen sustapena atala, hots bertsularitzaren hedapena, laguntzen du Euskal kultur erakundeak :

- Beste elkarteek antolatutako bertsu- saioak laguntzea (bertsulariak ordaintzeko dirulaguntza eskainiz eta sonorizazioa segurtatuz). 2012an Bertsularien lagunak elkarteak 15 saio lagundu ditu.
- Elkartetik saioak, sariketak eta xapelketak antolatzea, beti ere herrietako elkarteekin elkarlanean.

Azken sail huntan, bi ekitaldi nagusi izan ditu elkarteak 2012an :

- Hernandorena saria Itsasun maiatzaren 6an (Irabazlea Amaia Iturriotz) ;
- XILABA Txapelketaren 3. edizioa. Urriaren 6etik azaroaren 10era. Amets Arzallus Txapeldun izan da 3garren aldiz Baionaniragan den finalean. Karia hortara Bertsularien Lagunak elkarteak Baionako Hiriarekin, EEPekin eta EKekin partaidetzan animazio eta ekitaldi bereziak antolatu ditu (azaroaren 7tik 10era : Bertsolari filma Kalostrapen, Xabi Payaren mintzaldia mediatekan, Baionako bisita euskaraz Lucien Etxezaharretarekin, Ortzi Murua eta Aitor Servier-Echeguri bertsulariekin, bertsu inimizazioa 5 eskoletan).

Bestalde Euskal kultur erakundeak ikerketa saila laguntzen du bideo kamera bat prestatuz bertsularitzaren inguruko gertakari ezberdinak filmatzeko.

Informazio eta aholkuak eman ondoan, Bertsularien Lagunak elkarteak dirulaguntza eskuratu du PEJAtik (Programme européen Jeunesse en Action).

#### ● « ERROBIKO FESTIBALA » ETA « ETIOPIKOAK » FESTIBALAK

##### *Ezkandrai elkarteak*

##### ✘ Errobiko festibalari laguntza – Itsasu – 2012ko uztailaren 19tik 23ra

Errobiko festibalaren 17. edizioari laguntza. Gaia : “Hiri pastoral baten bideetan” sorkuntza, ikusgarri, hitzaldi, erakusketa eta kontzertu anitzen bitartez. Parte hartzaile nagusietan : Michel Portal, Beñat Achiary, Jean-Christian Irigoyen, Mixel Etxekopar, Julen Achiary, Maddi Oihenart, Mizel Théret, Philippe de Ezcurra.

##### ✘ Martxoko Etiopikoak festibalari laguntza – Baiona – 2012ko martxoaren 19tik 24era

Martxoko Etiopikoak festibalaren 4. edizioari laguntza, ondoko artista eta taldeentzat : Itxaro Borda, Mixel Etxekopar, Mizel Théret, Beñat Achiary, Joanna Etcheverry, Ttikia eta Handia....

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● « XIRU » FESTIBALA

##### *Abotia elkarte*

Xiru festibalaren programazioari laguntza, besteak beste artista hauek barne zirela : Jean-Christian Galtxetaburu, Ander Lipus, Mixel Etxekopar, Amaren Alabak eta Uztaro. Ekitaldiak, 2012ko martxoaren 30, 31 eta apirilaren 1ean, Aloze-Ziboze, Maule, Gotaine eta Irabarne herrietan izan ziren.

Festibala horren kariatara, « Oudaden » marokar taldeak kontzertu bat eman du martxoaren 31n Gotaiñeko elizan.

#### ● « MAI EN SCENE » FESTIBALA ETA « KOKOLOBATXI »-REN HEDAPENA

##### *Tokia elkarte*

##### ✘ **Antzerki eta karrika antzerki Festibalari laguntza**

Mai en scène festibalaren programazioari laguntza batez ere « Hiru xerri ttipi eta otso gosetua » ipuin emanaldiarentzat, « Spaghetti 2066 » SOS Danse konpainiaren dantza garaikide ikusgarriarentzat eta Pantxix Bidart « Artxibazk » kantaldiarentzat.. Festibala Mauleko herrian iragan da 2012ko maitzaren 24tik eta 26era..

##### ✘ **Tokia Théâtre konpainiaren « Kokolo Batxi » ikusgarri hedapenari laguntza**

Tokia Théâtre konpainiak « Kokolo Batxi » haur antzerkiaren hedapenarentzat laguntza eskuratu du, Iparraldeko lurraldean ikuskizuna aurkezteko urtean zehar : Kanbon, bi emanaldi (1/13), Bidarten bi emanaldi (4/13), Maulen (6/17, 10/26) eta Donapaleun (11/22).

#### ● « EHZ » FESTIBALA

##### *EHZ elkarte*

Heleta – 2012ko ekainaren 29, 30 eta uztailaren 1ean

EHZ festibalaren 17. edizioari laguntza eta bereziki Esne Beltza, Moby Dick, Anai Arrebak, Su Ta Gar taldeentzat...

#### ● « BI HARRIZ LAU XORI » FESTIBALA

##### *Biarritz culture elkarte*

Festibalaren programaziorako laguntza Asier Altunaren « Bertsolari » filmarentzat, Asisko Urmeneta eta Juanjo Elordiren « Gartxot » marrazki bizidunarentzat, Ertza dantza konpainiaren « Act of God » eta Xabier Erkizia / Maialen Lujanbio « Txori mugariak » ikusgarriarentzat, Bertrand Dezoteux eta Nader Koochaki « Hogeit'a » saridunen mintzaldientzat eta Mursego kontzerturako. Festibala Biarritzen iragan da 2012ko martxoaren 19tik 24era hiriko toki desberdinetan (Atabal kontzertu gela, Mediateka, Royal zinea, Colisée eta Les Découvertes geletan).

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● « HARTZARO » FESTIBALA

##### *Herri Soinu elkarte*

Otsailaren 10etik 21ra antolatu festibala da.

Hartzaro Festibalak bere hamaseigarren urtebetetzea ospatu du perkusioaren inguruan. Uztaritzeko herriko karrika eta plazetan atabal eta perkusioek hartza iratzarri dute beraien taupaden bidez.

- Maska erakusketa otsailaren 10etik 21era
- Otsailaren 11n : « Hartza iguzki » ikusgarria eta ohiko musika kontzertua
- Otsailaren 17an : « Buruz behera » dantza-sorkuntza :
- Izartxo taldearen neskek emanik, Arantxa Lannes-ek asmatu. Musika, Rémy Gachis, Gaita Luze taldeak emanik.
- Otsailaren 18an : Thierry Truffaut etnologoarenazken liburuaren aurkezpena «Euskal Herriko Lapurdiprobintziako inauteri eta negu ohituren zerrendatze bati».  
Ikusgarria : Txalamandra, Hiriburuko txalaparta, Itureneko Joaldunak (Nafarroa), Haritza Tamborrada (Donostia), Uztaritzeko ,Burrunkarrika, Burrunkaren dantza eta musika sorkuntza (Beñat Amorena), Zo-zongo (11 musikalaria eta 3 dantzari, Oihartzunetik), Afrikako perkusioak - ASCA(Uztaritze) eta Afrika Dambo(Larresoro) taldeak.
- Otsailaren 19an : “Hnuy illa” : Kukai Ttanttaka konpainiaren ikusgarria.

#### ● « HERRI UZTA » FESTIBALA

##### *Herri soinu elkarte*

Errobi herri elkargoaren lurraldean dantza eta musika sorkuntzen musika festibala urriaren 12tik 14era. Sorkuntza anitzen programazioa : Jauregitik (Ezpela taldea) Bai Dantza Klask (Baigorriko Tema taldea), Burrunkarrika (Burrunka), Sor-k (Ibarrako Alur taldea), Zun (Lagun’arte), Ravel Jauna (Etorkizuna konpania), Buruz behera (Izartxo taldea)...

Mintzaldiak eta Arrangoitzeko “Mutxikoaren eguna” topaketaren antolaketa IDBrekin partaidetzan.

#### ● “MÜSIKAREN EGUNA”

##### *Bil Xokua elkarte*

Musikaren besta Urdiñarben, maiatzaren 13tik 15era :

- Ⓜ Maiatzaren 13an : “Mari bi sos” euskal antzerkia,
- Ⓜ Maiatzaren 14ean : “Legea eta Askatasuna Ipar aldean ?” mintaldi-eztabaida, kontzertuak Musikal’de eta Oilarrak taldeekin,
- Ⓜ Maiatzaren 15ean : Botaluze, Zarena Zarelako elkartearen “Goazen” dantza ikusgarria, Ezpela txaranga, Ibiliz musika taldea.  
Egun osoan, Xiberoko artisten margo eta marrazki erakusketa.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● « DILIN, DALAN » FESTIBALA

##### *Pestacles et cie elkarte*

Dilin Dalan haur festibalaren programazioari laguntza, Pestacles et Cie elkartearen « Munduan gairi » ipuin emanaldiarentzat, Elirale konpainiaren « Ninika » dantza garaikide ikusgarriarentzat, Pantxika Solorzano eta Xano Halsouet bikotearen « Elektro Plist » performantzentzat. Festibala 2012ko maitzaren 26 eta 27an iragan zen.

#### ● « LES RENCONTRES IMPROBABLES » FESTIBALA

##### *Cie Les lézards qui bougent elkarte*

« Quelque chose de l’Au-dedans » G. Zaitu eta Handia eta Ttipia txalapartariekin Biarritzeko Colisée gelan 2012/11/20an eta « Quelque chose de la Terre » Xabier Erkizia, R. Keramsi eta S.Bouhana Baionako Kalostrapen 2012/11/22an performantzei laguntza euskal artistak gomiturik.

#### ● « USO POP » FESTIBALA

##### *Uso pop elkarte*

Uso Pop festibala – Sarako Liburutegiaren parkean – 2012ko uztailaren 7an.

Uso Pop festibalaren hirugarren edizioaren programazioari laguntza (Pantxika Solorzano & Xano, Gari, Belako). Festibalak Iparraldeko eta Euskadiko “pop inde” musika motari garrantzia ematen dio baita ere haurrei, musika elektro emanaldi batekin euskaraz.

#### ● BAXENABARREKO MUSIKA FESTIBALA

##### *Orgue en Baigorri elkarte*

Baxenabarreko XIII. musika festibalaren antolaketa uztailaren 27tik irailaren 2a arte: Baigorri, Donibane Garazi, Arrosa, Bidarrai eta Eugi (Nafarroan). Fetibal honek hiru norabide handi ditu: Organoa, Boza eta mugazgandiko harremanak. Bederatzi kontzertutan mugaren bi aldetako artistak eta koroak programatuak dira: besteak beste Philippe de Ezcurra eskusoinularia, Maitane Sebastian biolonzelajolea, « Bizi kantuz » abesbatza, « Easo Araoz Gazte » koroa...

#### ● « TXONTXONGILLO FESTIBALA »

##### *Akelarre elkarte*

Txontxongilo egunak Hendaian, azaroaren 19tik 25ra.

Ikusgarriak: *Beti Lagun* Rosa Martinez taldea; *Erraldoia bihotz gabea* Zurrunka taldea; *Wooling-en garatxoa* Goloka taldea; *Sialuk hartz txikiaren bidaia* En la Iona taldea; *Katillukadak* Kontakatillu taldea.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● EUSKAL KULTUR ASTE KULTURALA HAZPARNEN

##### *Eihartzea elkartea*

Bederatzigarren aste kulturala : « Etxez Etxe » Irailaren 29tik urriaren 5a arte :

- irailaren 29a, larunbata : « Etxeak » erakusketa eta Eihartzea egoitza arraberrituaren bisitak. « Ni nüzü » soinu dokumentalaren aurkezpena
- urriaren 1a, astelehena : Mahain ingura « Herrian bizi » elkartearekin : « Gazteria, EHko etxegintzari begira » ;
- urriaren 2a, asteartea : Michel Duvert-en mintzaldia : « Erdi aroko Euskal etxeak : eraikitze eta jatorria » ;
- urriaren 3a, asteazkena : Pantxix Bidart, Mattin Dainciart eta Beñadin Lohiague musikarien kontzertua « Larazetik dilindan » ;
- urriaren 4a, osteguna : Claude Labaten mintzaldia : « Etxea, karta postala bilakatu den mitoa ! » ;
- urriaren 5a, ostirala : Garaztarrak dantza taldearen « Kontrapas » emanaldia.

#### ● KULTUR ANIMAZIOAK HELETAN, « POTEO ATIPIKOA » FESTIBALA

##### *Traboules elkartea*

- ✘ **Euskal artistak Heletako Itsasoa gelan** : Traboules-ko korua, Cécile Prud'homme zuzendaritzapean.
- ✘ **Poteo atipikoaren antolaketa Heletan** irailaren 28tik 30era : irailaren 29an : "Haiek" antzerki sorkuntza, irailaren 30ean kantaldia Unama taldearekin, erakusketak...

#### ● JAZZ IN COLLEGE

##### *FSE La Citadelle elkartea*

« Lertxundi Kantatuz » bi kontzerturen antolaketa Jazz'in Collège programakari

- ✓ **Martxoaren 31an Hendaiaiko Daniel Ugarte pilotalekuan.** HENDAIA EUSKARAZ euskararen hilabetea kari : Kontzertua 2 zatitan : Lehen zatian : Hendaiaiko Irandatz, Baigorriko Jean Pujo eta Donibane Garaziko La Citadelle kolegioetako abesbatzek "2012ko Jazz'in college"n aurkezpena. 130 ikaslek, Benito Lertxundiren errepertorioa lantzea, bakoitza bere kolegioan. Jose San Miguel-ek egin ditu kantuen moldaketak, eta Gipuzkoako "Et Incarnatus" hari-orkestrak eta Xan Idiart gitarra joleak lagundurik. Bigarren zatian Benito Lertxundiren kontzertua "Itsas Ulu Zolia" bere azken diskoaren aurkezpenarekin
- ✓ **Ekainaren 1an, larunbata** : Jazz'in Collège kontzertua Baigorriko elizan : Hendaiaiko Irandatz, Baigorriko Jean Pujo, Donibane Garaziko La Citadelle eta Nafarroako Lekaroz kolegioetako abesbatzekin. 130 ikasle, abesbatzendako arramoldaketak Josean San Miguel eta « Et Incarnatus » hari orkestrak eta Xan Idaiart gitarrajoleak lagundurik.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● ZAZPI GIZON ABESBATZEN KONTZERTUA BAIGORRIN

##### *Irulegiko sormarka sindikata*

Zazpi gizon abesbatzen kontzertua Baigorriin, irailaren 8an : Iruñako « Voces Graves », Gipuzkoako « Ertizka », Arabako « Santa Lucia », Bizkaiko « Matsorriak », Baxenabarreko « Nekez Ari » eta « Xiberoko zohardia ». Irulegiko arnoaren bestakari antolatua.

Euskal kultur elkarteak proiektu honetan hastetik buru parte hartu zuen, hegoaldeko lau koruren ekarrarazteaz arduratuz eta Donibane Garaziko Turismo Bulegoko lehendakariarekin harreman jarraikiak ukanez.

#### ● EUSKAL LITERATURA

##### *Maiatz elkartea*

##### **Euskarazko solasaldiak eta literatura sorkuntzaren laguntzea :**

Literatura solasaldien antolaketa Baionako Euskal Museoa. Maiatzaren 15an : liburu aurkezpena : Peio Jorajuria "Inifife" obra eta berberoen kulturaz. Laura Mintegi, bere obra, bere ibilbidea, 30 urte hauek literaturan... (Itxaro Bordak galdezkatu). Performantza: Eric Dicharry eta Xabier Erkizia. Maiatzaren 16an : Pierre Mestrot, « Saiaren mendekua » nobela poliziala. Entzunikus emanaldia : "Oroitzapen analogikoak". Mahai-ingurua : « Zer aldatu da euskal literaturan 30 urtez ? » ; Urtzi Urkizu poetaren eta Urko Menaia musikariaren errezitala.

Bestalde, Maiatz aldizkariaren 54 eta 55. aleak argitaratuak izan dira.

#### ● EUSKAL ZINEMA

##### *Uda Leku elkartea*

Euskarazko zine hamabostaldia irakaskuntzako hiru saretako ikasleentzat : Filmak : « Franklin » (4 - 6 urte) eta « Igelak eta zapoak » (7 - 11 urte), urtarrilean aurkeztuak izan ziren, zinegela hauetan : Mauleko « Maule Baitha », Donibane-Garaziko « Le Vauban », Donapaleuko « Saint-Louis », Hazparneko « Haritz Barne », Baionako « L'Atalante », Donibane Lohizuneko « Le Select », Urruñako « Itsas mendi », Hendaia « Les Variétés », Biarritzeko « Le Royal » eta Kanboko « L'Aiglon ».

#### ● ANIMAZIO KULTURALAK BORDALEN

##### *Bordeleko Euskal Etxea*

Euskal kultur animazioak Bordeleko Euskal Etxean :

- Irailaren 15ean eta 16an : Ondarearen egunak, Ezpela txarangak alaiturik,
- Abenduaren 3an : Euskararen nazioarteko eguna : Euskarazko filme bat eta Kirmen Uriberekin mintzaldia.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● « IPARRALDEKO KONPILAZIOA »

##### *IPK elkarte*

Iparraldeko musika taldeen promozioa – Iparraldea – 2012ko uda eta larrazkenean Lurraldeko euskal talde hautatuen kontzertu antolaketari eta konpilazioaren zortzigarren aleari laguntza. Aurten programatuak izan diren taldeak Iparraldean : Torii, The Lookers, Begiz Begi, Islaia, Stéphanie Dessein eta The Balladurians. (EHZ festibala, Biarritzeko Atabal, gaztetxeen sarea)

#### ● « BALEAPOP 3 »

##### *Uso pop elkarte*

Uso Pop Kontrapasa festibalaren programazioari laguntza (Ruper Ordorika, Islaia). Festibala Sarako Lur Berri gelan eta Gaztetxean iragan da 2012ko otsailaren 25ean.

#### ● « HATSAREN POESIA »

##### *Hatsa elkarte*

”Olerkiaren eguna”ren antolaketa martxoaren 31an eta apirilaren 1ean, "Hatsaren Poesia 2012" liburuaren aurkezpena (14. alea) Senpereko Larraldean. Olerki idazle eta olerkizaleen topaketak: tailerrak, Idazleen olerki irakurketa, "Hatsaren olerki bustiak 2012". Bestalde, aitzin ageri gisa “Maite ditugun Olerkiak” sailaren barnean topaketa baten antolaketa martxoaren 9an “Brecht-Aresti-Poema hautatuak” liburuaren inguruan).

#### ● ESKOLETAKO HAURREN ANTZERKIA

##### *Euskal haziak elkarte*

“Antzerkiaren astea”ren antolakuntza, Urruñan.

Elebidun erakaskuntza girixtinoko haurrekin, antzerki emanaldiak muntatzea. Urtean zehar ikasleek prestatu dituzten antzerkiak, ekainaren 5tik 8ra aurkezten dituzte. Goizean bizpahiru emanaldi eta arratsaldean beste hiru. (Urruñia, Hazparne, Zuraide, Larresoro, Senpere, Angelu, Azkaine, Haltsu, Itsasu, Aldude, Sara, Donapaleu, Garazi eta Ortzazeko eskolekin).

#### ● EUSKAL ANTZERKIA UZTARITZEN

##### *Zortziko elkarte*

Mattin Irigoyen-en « Debrien bisaia » eta Xabier Mendigurenen « Publikoari gorroto » antzerkien hedapena Uztaritzen.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● « 29EME BILTZAR DES ECRIVAINS DU PAYS BASQUE »

##### *Sarako turismo bulegoa – Biltzar adarra*

##### **Sarako 29. Euskal idazleen biltzarraren antolaketa apirilaren 9an.**

Omanaldia : Pierre-Paul Berzaitz eta Guy Lalanne jauneri. Eusko Ikaskuntzako beken banaketa, Euskalzaindiaren liburuen aurkezpena, idazle aurkezpenak, haurrentako tailerrak “Esku Jokoak” (Oihana Esquirol Picabearen eskutik).

#### ● « SANTIBATE » ET « LIBERTIMENDIA »

##### *Garaztarrak elkarteak*

##### ✓ « Kontrapas » dantza ikusgarriaren hedapena :

Kontrapas izeneko dantza emanaldiaren hedapena. Joselu Berasategik zuzendutako ikusgarri honek, euskal ohizko dantza, dantza garaikidea, antzerkia eta poesia nahasten ditu. Gaiatzat « Euskara » hartuz taldekideek ohiko kultura eta modernitatearen arteko lotura galdezkatzen dute.

- Apirilaren 14ean eta 15ean Izpurako Faustin-Bentaberry gelan,
- Maiatzaren 27an Donibane Garazin
- Ekainaren 10an Donapaleun
- Uztailaren 5an Maulen.

##### ✓ Baxenabartar ihauterien antolaketa :

Garaztarrak elkarteak Baxenabartar ihauterien berezitasuna egiten duten bi ekitaldi antolatzen ditu : Santibate eta Libertimendua. Santibate (Zirtzilen edo Buhamien besta eta neguko sinboloa). Otsailaren 3an iragan zen Donibane Garazin eta libertimendua (Bolanteen eta udaberriaren berpiztearen besta) otsailaren 19an. Ekitaldi hauek dantza, musika, antzerkia nahasten dituzte herriko protagonista ezberdinak gomitatuz.

#### ● « BARATZE BOTANIKOA BERTSUTAN »

##### *« Les Amis du Jardin Botanique Paul Jovet » elkarteak*

Ondarearen egunen karietara, 2012ko irailaren 15ean, Sustrai Colina eta Odei Barroso bertsulariek bertsularitzaz hitzaldi bat eskaini ziguten : historia eta bilakaera, bertsu baten sortzeko teknika. Ondotik, publikoa lagun, bertsutan ibili ziren baratze botanikoan barna.



### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● « BAIONA EUSKAL KULTURAZ »

##### *Tuntuna elkarte*

##### **Baionan animazio kulturalak**

- ✓ Urte osoan zehar « Baionan Kantuz » hitzorduaren antolaketa (hilabeteko lehen larunbat guziz Baionako karrika eta plazetan). Eguberriko ospakizunentzat, Olentzeroren arratsaldearen antolaketa
- ✓ Karialdiaren antolaketa Baionako pestetan.

#### ● « KULTUR ANIMAZIOAK AIZIRITZEN »

##### *Euskal kultur elkarte*

- ✓ Euskal kulturari buruzko kontzertuak Aiziritzeko gela kulturalean : azaroaren 18an : Etchart Ahizpak, Miren Tristan, Gaelle Larroude, Maitena Monaco.

#### ● « LIBERTIMENDIA » AMIKUZEN

##### *Kitzikazan/k elkarte*

Amikuzeko « **Libertimendua** », 2012ko otsailaren 12an, Santibate gaua.

50 gaztek parte hartu dute : 30 bat dantzari goiti (Burgaintzi, Iruski taldeak), 10 bat zirtzil, dozena erdi bat muskari eta hiru bertsulari : Xan Alkhat, Ramuntxo Christy eta Bixente Hirigaray.

Antzerkiaren idazlea : Mattin Irigoyen. Bi orenetako emanaldia Donapaleuko karriketan.

#### ● « AINARAK »

##### *Où est la lune ? elkarte*

Peio Cabalette konpositoreak « Ainarak » filmarendako egin musika berriarentzat laguntza.

#### ● « JOKOZ KANPO »

##### *Pinpulka elkarte*

« Jokoz kanpo » ekitaldirako laguntza, Ezpeletako karriketan iragan zena 2012ko ekainaren 2an : Bapatean Zirko konpainiaren « Taberna » eta Alboka Tropik musika bikotea.

#### ● « HEBENTIKENEAN »

##### *Hebentik elkarte*

Hebentik elkartearen egoitzan programatuak ziren gaualdientzat laguntza: Musika inprobisatua Galtxetaburu, Xabier Erkizia eta Jon Sarasua artistekin eta egoitzatik kanpo : « Kanta Lextarre » Lixarreko plazan Sustrai Colina eta Xumai Murua bertsulariekin.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● « IMANOL KANTATUZ »

##### *Aldudarrak batasuna elkarte*

Thierry Biscary kantariarekin 2011an antolatu kantu tailleren ondok, “Oskorri kantatuz” kontzertuaren prestakuntza, Aldude eta Xibero aldeko kantariekin.

#### ● « KANTU XAHARREN EGUNA »

##### *Oxtikenekoak elkarte*

**Kantu zahararen egunaren** antolaketa, azaroaren 4an, Senpereko Larraldean. Kantu kultura bizia den herri hortan, bi urtetarik egiten den ekitaldi honek belaunaldi ezberdinak biltzen ditu kantuaren inguruan. Gaurko eta atzoko kantuak nahasten dituzte bazkari baten denboran. Ohiko euskal ondarearen transmizioa segurtatzen dute. Ondok liburu-disko batean biltzen dituzte kantu guziak.

#### ● « LAUETAN HOGOI »

##### *Gernika elkarte*

« **Lauetan Hogoi** » ekitaldiaren antolaketa : Pariseko Eskual Etxean kokatua den Gernika abesbatza honek bere 80 urteentzat bi kontzertu antolatu zituzten Euskal Herrian, Didier Verdeille-en zuzendaritzapean : uztailaren 20an Hendaiako elizan eta uztailaren 21ean Pasaia Donibaneko elizan. Philippe Saez txistularia eta Céline Victores Bernaverde altoa juntatu zitzaizkion koruari.

#### ● KULTUR ANIMAZIOAK MAKEAN

##### *Jostakin elkarte*

Jostakin elkarteak eraman dituen egitasmoak Makean, antzerkiaren inguruan: azaroaren 20ean : Bertsu – Antzerki gaualdia : bertsulariak : Txomin Elosegi, Bixente Irigaray, Gilen Hirribarren, Mizel Mateo eta Eleka konpainiaren « Hau dela, hori dela » emanaldiaren aurkezpena. Abenduaren 22an elkartearen 10. urtemuga kari : Mattin Irigoienek idatzitako « Debrien bisaia » antzerki emanaldia (Makeako gazteek emanik).

#### ● ARTISTEN IBILALDIA UZTARITZEN

##### *Ur Begi elkarte*

« **Artisten ibilaldia** » gertakariaren antolaketa irailean eta urte osoan erakusketen antolaketa **Heraitzen:**

Martxoan: Hartzaro festibalean parte hartzea : San Pantzarren auzia eta Kaskarotak dantzarietara ongi etorria.

Uztailaren 21ean: “Tradizioa berrikusia” gaualdiaren antolaketa: Getaria euskal dantza taldearen emanaldia eta El Drangon Mandragoren su ikusgarria.

Artisten ibilaldia “Sormenaren erezak”: irailaren 9an, 13. edizioa : pintura eta arte plastiko lehiaketak, Ondarearen ofizialeen erakusketa, arte plastiko tailerrak haur eta helduentzat.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● “INTXAURMENDI KANTATUZ”

##### *Zubia elkarte*

“Intxaurmendi Kantuz” egunaren 5. edizioa: urte osoko programazio kultural baten denbora azkarra uztailaren 7an: Lekuine jokoa, oinez, kantuz, eta dantzan : egun osoan, Intxaurmendin ibilaldia, Kantuz taldearen kantaldia, Buzbuu taldearen kontzertua eta Bertsu saioa Nahia Sasco, Odei Barroso eta Xumai Muruarekin..

#### ● KANTALDIA ALTZÜRÜKÜN

##### *Goiz Argi elkarte*

« Gaü izartsü » kantaldia Altzürüküko elizan, uztailaren 13an : Leila Bredent, Guillaume Dussau, You Zhou alde batetik eta Nadine Elgoyen eta Lucien Larraus-Joa euskaldun kantariak.

#### ● MUSIKA SORKUNTZA

##### *Adixkideak elkarte*

Musika sorkuntzarako laguntza, elkartearen 40. Urtemuga kari, urriaren 5ean, Angeluko elizan.

#### ● OTXOTE FESTIBALA

##### *Arraga elkarte*

Otxote festibala », 2012ko maiatzaren 4ean eta 5ean Kanbon. Koruak : Oxote Bilbo Argia (Bilbo), Aizkoa (Baiona), Coro Easo (Donostia), Eguzkilore (Donostia), Etxekoak (Bordele), Ozenki (Donostia).

#### ● « KANTU ETA DANTZA »

##### *Iparralai elkarte*

Dantza eta kantu taillerak Donibane Garazin, Baxenabarreko hamazazpi herrietako 50 bat haurrentzat (6 et 11 urte artekoak). Euskarazko erakaskuntza. Erakaslea : Denise Olhagaray. Mugazgaindiko harremanak bultzatu kantaldi eta ikusgarri batzuk hegoaldeko elkarteekin antolatuz.

#### ● MUSIKA HARMONIZAZIO LANAK

##### *Les Labourdins elkarte*

Himno kantatu baten idazteko laguntza Les labourdins taldeko soinuariarentzat. Idazketa eta harmonizazio lanak.

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● PASTORE LORE

##### *Azkaingo Turismo Bulegoa – Ondarea adarra*

Egun osoan, Azkainen, euskal kultura eta artzaingo mozkinen koloreak dakarzkien *Larrungo Lorea* ohoratzen da. Lurraldeko ondarearen aberastasuna argitan ematen duen gertakaria. Euskal dantza emanaldiak "Ikasleak" taldearekin eta Itsasuko makilariak. Arratsean, kantaldia Artxeroak taldearekin.

#### ● « IPARRA HEGOA »

##### *Iparra Hegoa elkarte*

« Iparra hegoa » ekitaldia martxoaren 9tik apirilaren 1era Seguran (Gipuzkoa).

Ekitaldiak : « Sentimorik gabe » Ramon Agirre eta Inazio Tolosaren euskal antzerkia, "Gartxot" Asisko Urmenetaren filmaren aurkezpena, Nafarroako konkistari buruzko hitzaldia Beñat Agirrerekin, bertsu-saioa Amets Arzallus eta Julio Sotorekin. Animazioak Kuxkuxtu txarrangarekin.

#### ● ERAKUSKETAK BARDOZEN

##### *Foyer de Bardos elkarte*

- **33. Arte garaikide erakusketaren antolaketa** ekainaren 16tik uztailaren 1era Salha jauregiko gelan. Gaia : Gaurko jantziak.
- « **Carmina Burana** », Bizi kantuz koruaren kontzertua, 2012ko urriaren 27an aurkeztua Barozeko elizan. Lauetan hogeit hamar kantari, Anne Paumard sopranoarekin, Philippe Guichenducq zuzendaritzapean. Pianoan : Françoise Elhuyar.

#### ● ERAKUSKETAK MENDIKOTAN

##### *Algareki elkarte*

Erakusketa batzuen antolaketa, Mendikotan. Besteak beste Koldobika Jauregui (eskultura) eta Alain Sistiaga (margoak) maiatzaren 8tik 31ra.

#### ● ERAKUSKETA EZPELETAN

##### *Begi elkarte*

Udako erakusketa Ezpeletako gazteluan, uztailaren 27tik agorrilaren 24era.

Gaia : « Zuhaitza ».

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

#### ● ARGAZKILARIEN BILTZARRA DONIBANE-GARAZIN

##### *Argian elkarte*

Argazkilarien Biltzarraren 20. edizioaren antolaketa, Irailean. Ospakizun horrentzat, elkarteak mugazgandiko harremanak garatu nahi izan ditu gai gisa « Nafarroa » hautatuz. Bestalde, argazkilari amaturrei eta profesionaleri idekia den argazki lehiaketa bat antolatzen du (Iparraldeko eta Hegoaldeko artistei idekia). Hilabete osoan eta herri osoan gaindi erakusketak izan ziren herriko lau geletan. Gertakari honentzat Nafarroan kokatua den Lizarra herriarekin parekatze bat egin zen. Azkenik tokiko ikastetxei ekitaldiak proposatuak izanen dira. Bestalde, urte osoan zehar, elkarteak bilketa eta numerizazio lan bat eraman du argazki zahar batzu bilduz. Helburua Garazi eta Baigorriren kantonamenduei egiazko argazki fondo bat eskaintzea dute.

#### ● GAZTELUMA LITERATURA BEKA

Euskal kultur erakundeak proposaturik, Iparraldeko idazleak euskaraz idaztera lehiatzeko asmoz, Gazteluma Literatura Sorkuntzarako Burtsa sortu zen 2001ean. Helburua : 40 urte baino guttiagoko idazleei fikziozko euskarazko obra baten idazteko gutizia emaita. Diruztatzaileak dira : Euskalgintza elkarlanean  
Fondazioa, Elkar Megadenda eta EKE.  
2012ko irabazlea Peio Jorajuria izan da, *Otalazt* izenordearekin, « Jaun Martin » idatzi duena.

### MUNDUAREKIKO KULTUR TRUKAKETAK

#### ● « OROK BETAN »

##### *Pariseko Eskual Etxea elkarte*

Munduko musika eta dantza festibalaren 8. edizioaren antolaketa martxoaren 31an. Eskual Etxeko Gazteria dantza taldeak antolaturik. Arratsaldean dantza ikastaldiak (kultura bakoitzak bere dantza erakasten du besteei), gauean dantza emanaldiak eta kontzertua. Urtero beste 2 elkarte gomiatuak dira (irlandesak, bretoindarrak, portugesak, afrikarrak ...)

#### ● « EUSKAL KULTURA KEBEK HERRIAN »

##### *Parc Aventure basque en Amérique elkarte*

Euskal kulturaren hedapena Kebek hirian 2012ko urtean. Erakusketa gunen berriaren estreinaldia eta animazio desberdinak : Iparraldeko euskal artistak...

#### ● TRANSILBANIA – EUSKAL HERRIA : KULTURA TRUKAKETAK

##### *Getaria elkarte*

Kultura trukaketak Asociația culturală formată de dansari pipacsok-rekin. Getariako euskal dantza taldea Transilbaniara joan zen 2012ko agorrilean. Egitaraua : ikusgarriak, euskal dantza formakuntza, mahai inguruak...

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

## BESTE PARTAIDETZAK

#### ▣ Donostiako ospitale nagusia – euskara zerbitzua

Lehen harreman bat sortu du EKE-k Donostiako ospitalearekin, mintzaldi bat eskainiz 2012ko abenduaren 2an, euskal kantuarren gaia hartuz (Kantuketan – Pantxoa Etchegoin). Beste ekitaldi batzuren egiteko aukera ukanen du 2013an.

▣ « **Oroitzen naiz** » DVD-a, Mizel Théret-ek sortu emanaldia (Jean Nesprias , Philippe Oyhamburu eta Koldo Zabala dantzariekin), **Lyon** hirian aurkeztua izan da.

#### ▣ Iparraldeko artisten hedapena

ELKAR argitaletxeak bi hitzordu nagusi antolatu ditu Iparraldeko kantariekin, ohizko kantuen eta gaurko musiken inguruan. Biak Donostian iragan dira, Kursaal eta Vitoria Eujenia aretoetan. Mugazgandiko harremanen sostengatzeko xedearekin, Euskal kultur erakundea partaide izan da, antolaketa teknikoan.

##### ➤ « **Baionatik Bilbora** » : 2012ko martxoaren 11an

Kontzertu haundi bat eskainia izan da iparraldeko kantarien inguruan, Donostiako Kursaal aretoan, artista ezberdinekin : Pantxoa Carrere, Erramun Martikorena, Mixel Ducau, Kantiruki, Naia Robles, Maialen Errotabehere, Niko Etxart, Bidaia, Anje Duhalde.

##### ➤ « **Xiberoko sutondoan** » - 2012ko abenduaren 2an

*Xiberoko sutondoan* izenburupean, eta haritzat hartuz Niko Etxart eta haren familia, ikusgarriak musikari eta kantari paregabeko honen ibilbide berezia erakustera emaiten du, nola ohizko euskal kantuetan, hala rock munduan : Pariseko egonaldiak, Odol berriak taldearekin, euskal tradiziozko kantugintza *Altzükütarrak taldearekin, eta Niko Etxart, bakarlari eta ereslari gisa.*

Ikusgarri honetan, omenaldi bat egin izan zaio ere Nikoren aitari, Dominika Etxart zenari, hau 2012ko martxoaren 17an zendu zena, hainbeste kantaldi eskaini ondoan Roger Larrandaburu abeslariarekin, Eperrak diskaren inguruan, besteak beste.

Parte-hartzaileak : Niko Etxart (gitarra, ahotsa), Robert Larrandaburu, Jean Etxart (ahotsak), Dominique Earl (gitarra, ahotsa), Kiki Graciet (armonika eta ahotsa).

#### ▣ Durangoko 47. Euskal liburu eta disko azoka

Seigarren urtea da Gerediaga elkarteak (azokaren antolatzailea), Plateruena Kafe Antzokiak, Ahotsenea elkarteak (oso arrakastatsua den sortzaileen gunea kudeatzen duena) eta Euskal kultur erakundeak haien partaidetza eramaten dutela.

Iparraldeko ekoizpenak musikagintzan eta literaturagintzan ezagutaraztea da partaidetzaren helburua eta horrela lortu izan dira :

- Iparraldeko disketeen eta argitaletxeen parte hartzea errextuz (Agorila, ZTK, Maiatz, Gatzuzain, Elkar, Ikas, Euskalzaleen Biltzarra eta Arteaz) ;

### 3. Kultura aktoreen sostengatzea

- Iparralde gune bat sortuz publikoaz orain ezaguna eta identifikatua dena ;
- Komunikazio plan garrantzitsu bat plantan ezarriz (prentsaurreko, [www.durango.eke.org](http://www.durango.eke.org) web gunearen sortzea, mailing kanpainak...)
- Berritasunen aurkezpen bat antolatuz Plateruena Kafe antzokian, Ahotsenea gunean, Azokako aurkezpen aretoan eta aurten bigarren aldikoz, umeen txokoan

Aurtengo egitaraua :

#### AHOTSENEA GUNEA – IDAZLE / TALDE AURKEZPENAK

Abenduaren 6an, ostegunez

15:00 | Liburu aurkezpena : Eric Dicharry, *Hormatik Hormaraino* (Maiatz)

Abenduaren 7an, ostiralez

16 : 00 | Liburu aurkezpena : Xabier Soubelet, *Oroizirriak 2* (Maiatz)

Abenduaren 8an, larunbatez

11:30 | Liburu aurkezpena

Amaia Hennebutte Millard, *Himalayajavakaputadiziburrina eta Begi Blue* (ZTK)

15:00 | Liburu aurkezpena

Emilio Lopez Adan "Beltza", *ETAren estrategia armatuaren historiaz* (Maiatz)

Abenduaren 9an, igandez

11:30 | Liburu aurkezpena

Ainara Maia urroz, *Chansons d'amour, ilargi beterik gabeko gauak* (Maiatz)

17:00 | Liburu aurkezpena : Urtzi Urkulu, *Kezka bat gutxiago* (Maiatz)

18:00 | Liburu aurkezpena : Peio Jorajuria, *Inifife* (Maiatz)

#### PLATERUENEA – KAFE ANTZOKIA

Abenduaren 8an, larunbatez

13:00 | Kontzertua Etchart Ahizpak

UMEEN TXOKOA

Abenduaren 9a, igandez

15:00 | *Olentzero* (Ikas) liburuaren inguruko Kamishibai tailerra - Haize Othondo

Abenduaren 9a, igandez

16:30 | Idazle topaketa - Nicole Lougarot, *Bohémiens* (Gatuzain)

Abenduaren 6an, ostegunez:

Iparraldeko liburutegi eta mediatekako langileak Durangoko Azoka bisitatzen

Euskal kultur erakundea eta Pirineo Atlantikoko kontseilu orokorraren tresna den Departamenduko Mailegu Liburutegiaren (BDP - "Bibliothèque Départementale de Prêt" delakoa) arteko elkarlanari esker, abenduaren 6an, bisita profesional berezi bat antolatua izan da Durangoko azokan:

Bigarren aldikoz, Iparraldeko liburutegi eta mediateketako dozena bat langile eta BDPko kideak azoka elgarrekin bisitatzera etorri dira.

Iparraldeko argitalpen munduaren eta bereziki euskarazko argitalpenaren ikuspegi hobeto bat eskaintzea zen egun honen helburu nagusia.

Egunaren programa hori izan da:

- Gerediaga eta Euskal kultur erakundea egituren aurkezpenak eta kideekin topaketa,
- Azokaren aurkezpena eta bisita gidatua,
- Iparraldeko argitaletxe eta disketxeen ezagutza,
- Liburutegi eta mediateken langileen arteko harremanen garatzea.

Euskal kultur erakundeko arduradun bat hor izan da egun osoan taldea laguntzeko eta arartekolaritza eta aholkuraritza egiteko. Egun horrek emaitza baikorra ukan du (bereziki Irakurketa Publikoaren sarean) eta heldu den urtean berriz antolatua izanen da (eskaera jaso dugu batez ere presente ezin izan duten mediateketako agenteen gandik).

## 4. Ezagutzen partikatzea

### BALIABIDE ZENTRO BAT IZAN

#### ➔ Informazio zaintza antolatu

Euskal kulturari buruzko jakitateen bilketa, hautaketa eta sintesia lan bat eginez, EKEk beregana heldu diren publiko ezberdinen (publiko zabalaren eta publiko berezituen) bilaketak erraztu nahi ditu, kasu bakoitzarentzat erantzun egokia proposatuz. Dokumentazio zentro bat izan gabe, informazio zaintza honen bitartez, EKE euskal kulturaren topagune bat bezala agertzen da.

Asmo horrekin, 2012an, EKEko langile batek formakuntza bat segitu du informazio zaintzan berezituriko Roazhoneko erakunde batekin. Ondorioz, urte batzuetako plana zehaztu ahal izan du, EKEk egin zaintzaren helburuak eta hizkuntza nahiz geografia perimetroa mugatzen dituen. Bestalde, informazioaren bilketa, tratamendu eta hedapen moldeak (besteak beste [www.eke.org](http://www.eke.org) atariaren bidez) zehaztu ahal izan dira.

Metodologia hori aplikatua izanen da erakundearen antolatu zaintza taldean.

#### Zaintzaren helburuak

1. Euskal elkarte eta artisteei informazio baliosak ematea berentzat lagungarri izan daitezkeen sorkuntza, hedapen, bitartekaritza alorretan eta orokorkiako kultura animazioan;
2. Programatzaile publiko eta pribatuei, lurraldeko kultura eskaintzarekilako harremana errazteko informazio elementuak eskaintzea ;
3. Euskal kultur erakundearen ikuskapen misioa lauzkatu, lurralde elkargoek (Eskualdea, Departamendua, Herri Elkargoak, Herriak...) EKEri egin obragintza laguntza galderen kariatara ;
4. Publiko zabalari euskal kulturaren aktualitatearen berri ematea, informazio iturriak seinatu, kultura, hizkuntza eta ondare sailak ezagutu eta sakontzeko (ondare material et inmateriala, euskara, bertsularitza, musika, antzerkia, dantza, arte plastikoak etab.) ;
5. Euskal kultur erakundeko lan taldearen ezagutzen aberastea, egituraren lan alor bakoitzaren bilakaera estrategikoen aurreikusteko ;
6. Sarean eta saretik kanpo, Euskal kultur erakundearen irudiaren inguruko informazio nabarmenak zaindu

#### Kultura biziaren behatoki izatea

Publiko guzietan zuzendua

Kultura eragileek berek eman datuei eta prentsan bildu xehetasunei esker, Euskal kultur erakundeak ipar Euskal Herri mailako sareko euskal kulturaren agenda eguneratzen jarraitu du (mintzaldiak, kontzertuak, animazioak...). Agenda hori, albiste hari batez osatzen da, aktualitatearen zaintza lanari esker, osatzen dena. Bildutako datu geolokalisatuei esker, urteko kultura eskaintzaren estatistiken panorama zehatz bat egin daiteke, lurraldeka, gaika edota denboraldika.



## 4. Ezagutzen partikatzea

### **Euskal kultur erakundearen web-atariko agendan 2012an sartu diren datuen sintesia Ipar Euskal Herria (Lapurdi, Baxenabarre, Zuberoa)**

1192 gertakariren datak argitaratuak izan dira 2012an Euskal kultur erakundearen webgunearen agendan. Haietarik 1028 Ipar Euskal Herriko probintziekin zerikusia zutelarik (Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoa) eta gaineratekoak Hego Euskal Herriarekin edo Euskal Herritik kanpoko eremuekin.

#### **Gure informazio iturriak**

- EKE-ren ihardueren bidez bildu informazioak;
- Kultur eragileek igorritako datuak;
- Sarean eta prentsan eraman zaintzaren emaitzak.

#### **Argitaratze irizpideak**

Euskal kulturaren inguruan antolatzen diren gertakariak plazaratzen dira bakarrik. Hobetsiak dira ondoko arloak:

- Euskal kantua eta musika
- Euskal dantza
- Bertsolaritza
- Euskarazko antzerkia
- Ahozko eta idatzizko euskarazko literatura

Onartuak dira:

- Arte erakusketak baldin eta Euskal Herriko artisten obrak baloratzen badituzte hobetsiz bisitarien eta artelanen arteko euskarazko mediazio bat segurtatzen duten erakusketak;
- Euskara, euskal kultur ondarea edo euskal kultur adierazpenekin lotura bat duten dantza, antzerki, musika baita zirkoko eta karrikako arte ikuskizunak;
- Euskal kultur ondaregintzako gaiekin (historia, etnologia, arkitektura, mitologia...) lotura duten hitzaldiak bezalako gertakariak.

Gertakariaren eta euskal kulturaren arteko lotura ez delarik begi bistakoa beste kriterio batzu aztertzen ditugu ere, eta bereziki euskarari egiten zaion tokia, bai komunikazio arloan (afitxak, webgunea.), bai animazio arloan (haurrekilako lanak).

## 4. Ezagutzen partikatzea

Besteak beste onartzen ez ditugunak agendan:

- Biltzar nagusien iragarpenak;
- Prentsaurrekoak;
- Kirol hitz-orduak;
- Euskal jokoei lotu gertakariak (mus lehiaketak...);
- Herriko Bestak (gertakari gisa);
- Deialdiak;
- Natura ingurumenari lotu gertakariak.

### Agendako terminologia

Agendan argitaratzen diren gertakariak atal handitan banatuak dira.

**Erakusketak:** mota guzietako erakusketak (arte plastikoak, erakusketa didaktikoak...).

**Hitzaldiak:** mota guzietako hitzaldiak (liburu aurkezpenak, gai baten aurkezpena, eztabaidak, irakurtaldiak...).

**Ikastaroak** (tailerrak-formakuntzak): noizbehinka publiko zabalari proposatuak zaizkion mota eta gai desberdinetako prestakuntza laburrak.

Bertsu saioak: mota guzietako bertsu saioak (bertsu apairuak, saioak, txapelketak...).

**Kontzertuak:** estilo guzietako musika eta kantu kontzertuak (rock, a capella, abesbatzak, orkestrak ea.).

**Ikuskizunak:** ikusgarri biziduna alorreko ikuskizunak (dantza, antzerkia, zirkoko eta karrikako arteak).

**Festibalak eta ekitaldiak:** festibalak eta egun bateko gertakariak. Herri Urrats bezalako ekitaldi jakin horiek hitzordu desberdinez osatuak dira gehienetan (animazioak, erakusketak, kontzertuak) baina ez beti (adibidez Musikaren Eguna, kontzertuz osatua da gehien bat eta Poesiaren Eguna, hitzaldiz eta irakurtaldiz).

**Animazioak:** atal honetan biltzen ditugu gainerateko kategorietan sartzen ez diren gertakariak. Gehien-gehienetan dohainik direnak -salbuespenak albuespen, adibidez zineko emanaldiak -eta iraupenaren aldetik aski mugatuak (zombait oren gehienik). Urtean zehar iragaiten diren ospakizunak eta besta erritualak (maskaradak, olentzero...) sartzen dira atal horretan. Bideo proiektzioak eta beste performantzia artistikoak ere bai adibidez. Azken finean, biziki idekia da kategoria hori.

### Oharrak

Nahiz eta ahal bezainbat zehatza izan sintesia lan honek bere mugak dauzka, batez ere informazio bilketari eta argitaratze irizpideei lotuak. Alde batetik ezinezkoa da lurraldez lurralde antolatuak diren ekitaldi guztiak konduan hartzea. Ospakizunen eta erritualen garaian (inauteriak, olentzero...) edo udara buruz loratzen diren herriko besten sasoi betean adibidez neke da euskal kulturarekin zerikusia duten gertakari oroen zerrendatzea.

Bestalde argi da euskal kulturaren arloen sartzen diren gertakariak bereiztea interpretazio kontu bat izaten dela maiz, batez ere euskararekin lotura gutti duten arte plastikoak bezalako alorrei begira. Gure hautespen-irizpideak beti izanen dira hobetzekoak eta nahitaez mugatuak euskal kulturaren definizio errazionalik ez baita.

Arrazoin guzti horientatik dokumentu honetan agertzen diren datuak eztabaida eta osa daitezke. Halere uste dugu lurralde honetako zombait tendentzien berri ematen dutela. Bistan da, bigarren urrats batean, azterketa eta interpretazio lan batek ederki osa lezake lehen hurbilpen hau erakasper nagusi batzuek agerian utziz.

Egutegi hori osatzeaz gain, EKEk euskal kulturaren alorrean ari diren pertsona, elkarte eta egituren erreperitorio publiko bat eguneratzen du ere.





# Euskal kulturaren agenda 2012

## Datu orokorrak

Ipar Euskal Herria (Lapurdi, Baxenabarre, Zuberoa)

www.eke.org atariko agendako kategorien araberako banaketa. Agendan sartu **1028 gertakarietan oinarritua.**

- Erakusketak** | %9,14 (2011n: %9,28)
- Animazioak** | %22,18 (2011n: %17)
- Bertsu saioak** | %3,11 (2011n: %1,9)
- Festibalak & Ekitaldiak** | %5,45 (2011n: %7,27)
- Hitzaldiak** | %10,8 (2011n: %6,82)
- Tailerrak-formakuntzak** | %1,75 (2011n: %2,24)
- Ikuskizunak** | %12,26 (2011n: %17,67)
- Kontzertuak** | %35,31 (2011n: %37,81)



Hilabeteen araberako gertakari daten banaketa - www.eke.org atariko agendan sartuak

# Euskal kulturaren agenda 2012

## Lurraldeen araberako datuak

Ipar Euskal Herria (Lapurdi, Baxenabarre, Zuberoa)

www.eke.org atariko agendako kategorien araberako banaketa. Agendan sartu **1028 gertakarietan oinarritua**.




### Kostaldea



### Erdigunea



### Barnealdea




Lurraldeen araberako herrien banaketa Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluak eraman ikerketetan oinarritua da

# Euskal kulturaren agenda 2012

## Herri elkargoen eta hiriguneen araberako datuak

Ipar Euskal Herria (Lapurdi, Baxenabarre, Zuberoa)

www.eke.org atariko agendako kategorien araberako banaketa. Agendan sartu **1028 gertakarietan oinarrituta.**



## 4. Ezagutzen partikatzea

### - Jakintza entziklopedikoaren iturriak ezagutu

Publiko guzietan eta publiko berezietan zuzendua

2012an, Euskal kultur erakundeak euskal kulturaren alor ezberdinei (dantza, kantua, musika, bertsularitza, literatura...) buruzko oinarritzko jakintzen (alde historikoa, soziologikoa, teknikoa, etab.) erreferentziatzko iturrien sailkatze lan bat abiatua du. Konkretuki, ezinbesteko informazio iturri horiek gaika sailkatuak izan dira. Aktualitatearen arabera eguneratzen diren webografia tematiko batzuek zerrenda horiek osatzen dituzte.

### - Kultura ekintzaren tresnen sailkatzea

Programatzaileei, elkartei, artistei zuzendua

Bizi artistikoaren eta elkarte biziaren eragileak eta programatzaileak beren programazioan laguntzeko asmoz, Euskal kultur erakundeak hainbat baliabide baliagarri ezarri ditu beren esku. [www.eke.org](http://www.eke.org) webgunearan bidez kontsultagarri diren baliabide horiek, honela banatzen dira :

- Kultura eragileen erreperitorio bat (ipar Euskal Herriko ikusgarri gela eta festibalen zerrenda batekin, besteak beste);
- Programatuak izan daitezkeen sorkuntzen katalogo bat, finkaturiko irizpide batzuen arabera (aurreikusitako hedapen egutegia, publikoak, baldintza materialak, etab.) ;
- Albiste profesionalen haria : hautaturiko albiste batzuek (hautagaitza deialdiak, lehiaketak, lan- eskaintzak...);
- Albisteak (proiektu deialdiak, formakuntzak...) eta kultur eragileentzat baliagarriak izan daitezkeen loturak biltzen dituen profesionalen berriraketa bat, hilabeteko igorria dena

### ➔ Euskal kulturaren hedatze tresnak ekoiztu eta kudeatu

Euskal kultur erakundeak bildu ezagutzen eta publiko ezberdinen arteko arartekotasuna segurtatzeko, euskarri didaktikoak edo ludikoak sortzea ezinbestekoa da kultura eta ondare gaien hedatzeko orduan, izan dadin sarean (webgunek, mugikorrendako aplikazioak...) edo saretik kanpo (erakusketak, DVD-ak, liburuak, eskuliburuak...).

### - Euskal kultur erakundearen web ataria

Zaintza zerbitzuak bildu informazioen kariatara, Euskal kultur erakundearen ataria estrategikoki biziki garrantzitsua da. EKEren komunikazio eta mediazio politikaren ezinbesteko tresna da. Helburu horrekin, gunea osoki bermoldatua izan da 2012an, gero eta handiagoak diren argitalpen eta informazioaren hedapen bizkorren beharrei erantzuteko.

## 4. Ezagutzen partikatzea

EKEren atariaren bermoldatzeko, ezinbesteko baldintzak kontutan hartuak izan dira :

- 8 urtez sarean ezarriak izan diren datu guziak atxikitzea eta salbatzea
- Eleanitzeko edukien eguneratze sistema berritzea, zaintza eta erredakzio lanean aritzeko denbora aurrezteko (ZOPE aplikazio zerbitzarian oinarritu PLONE eduki kudeaketa sistemara pasatzea) ;
- Sare sozialeen eta geolokalisaziotik eratorri aplikazioen (agendako gertakarien geolokalisazioa) eragin gero eta handiagoa kontutan hartzen duten funtzionalitateak txertatu ahal izatea;
- Kultura eragileen datubasearen kudeaketa eta kontsulta publiko eta pribatua hobetzea (artistak, baliatokiak, elkarteak, ikusgarri areto eta lekuak, etab.) ;
- Sailkaturiko web loturen zerrendetako datubaseen eta atariko atal tematikoen arteko lotura erraztu (internet lotura interesgarrien sailkapena kultura alorka : kantua/musika, dantza, literatura, etab.)
- Kultura eragile profesionaleri eta amaturrei, bai eta elkargoei zuzendu baliabide teknikoaren sareratzea eta sailkatzea erraztea (fitxa teknikoak, formakuntza bildumak, lotura baliagarriak);
- Atariaren ergonomia (informazio bilaketa) eta grafismoa (atariaren, karta grafikoa, mugikorretarako bertsioa eta berripapera) hobetzea.

Berritua izanik, Euskal kultur erakundearen ataria eguneroko lan tresna bat da lantaldearentzat, baina ere, informazio topagune elebiduna behar ezberdinak dituzten publikoentzat (kultura aktualitatea, sareko baliabideen erreferentziamentu tematikoa, euskal kultura munduaren errepertorioa, txosten teknikoak elkarte munduko kultura eragileentzat eta erakunde publikoetakoentzat ere...).

Ataria obretan izan den denbora guzian, [www.eke.org](http://www.eke.org) martxan egon da.

Atariari lotuak diren beste guneei dagokienez ([www.bertsulari.com](http://www.bertsulari.com), [www.euskalmunduak.com](http://www.euskalmunduak.com), blogak, hitzaditza.com, iparraldea.info...), denak bilduak izan dira eke.org plataformaren barnean, nortasun grafiko berarekin.

Grafismoari dagokionez, diseinu berria “If diseinuak”-ek sortu Euskal kultur erakundearen logotipo berrian oinarritzen da.

Edukien aldetik bi gai tematiko barnatuak edo arramoldatuak izan dira 2012an:

### “Bertsularitza” atala”

Euskal kultur erakundeak [www.bertsulari.com](http://www.bertsulari.com) gunean ziren edukiak txertatu ditu eke.org bere atariko bertsularitza atalean, eta berritu ditu Bertsularien lagunak elkartearen laguntzarekin. 2005ean sareratuak izan ziren testuak egokituak eta gaurkotuak izan dira. Iparraldeko bertsularitzaz, emaztearen lekuaz eta bertsulariez aipamen berezia egin da gai hortan aditua den Beñat Soulé-ren ekarpenari esker.

## 4. Ezagutzen partikatzea

### “Euskal dantza” atala

Euskal dantza tradizionala publiko zabalari molde ulergarri batez aurkezteko gisan lan berezia eraman du Oier Araolaza dantzariak. Euskal kultur erakundearen eskakizunari baikorki ihardetsiz txosten eder bat argitaratu du [www.eke.org](http://www.eke.org) atarian gai honen inguruan.

Nondik dator euskal dantza? Zein da aurrekuaren erranahia? Fandangoa al da Euskaldunen dantza tradizionala? Noiz eta non ikus euskal dantzarik adierazgarrienak? Neofitoek egin ditzaketen horrelako galderei erantzuten saiatu da Oier Araolaza, Dantzan.com euskal dantzaren erreferentziako webgunearen sortzaile eta dibulgatzaile gisa ere ezaguna den dantzari gipuzkoarra. Euskal kultur erakundearen webguneko "Dantza" atalean ohiko dantzaren inguruko topikoak jorratu ditu egileak dantzak Euskal Herrian ukan duen historia laburbilduz. Halere gaur egungo dantzaren adierazpen bizien aipamenetan luzatu da gehien bat Oier Araolaza, sasoin ez sasoin, zazpi probintzia historikoetan arte herriko honen daukan dinamika eta jarraipena agerian utziz. Dibulgazio lan hori EKE-k hornitutako euskal dantzaren Iparraldeko agendaz eta aktualitateaz osatua da, bibliografia labur batek, baliabide-iturri nagusien zerrendak baita webgrafia batek gaia sakontzeko parada eskaintzen dutelarik.

### - Multimedia erakusketak

Momentu honetan, Euskal kultur erakundeak bi multimedia instalakuntza baditu, antolatzaileen esku uzteko modukoak :

- Bata arina eta ttikia (6 metro karratu), pertsonalizatzeko aukera ematen duten bi ukipen pantailaz osatua. Multimedia eduki tematikoak kontsultatzeko parada eskaintzen dute (euskal kantu eta musika, lekukotasunak, dokumentalak...);
- 2011n estreinatua izan den “Itsasturiak” erakusketa, 80 metro karratukoa. Erakusketa hori Donibane Lohizune / Ziburuko arrantza portuaren bilakaera ezagutu duten jendeen lekukotasunetan oinarritzen da. Lekukotasun horiek, Euskal kultur erakundeak bildu ditu 2010ean, “Eleketa” deitu bilketa programaren kariatara. Lekukotasun horietaz gain, lekukoek berek eskaini artxiboko irudiak ikus daitezke, bai eta portuari buruzko bideo dokumentalak, multimedia euskarrietan kontsultagarri direnak. Bestalde, Sébastien Husté argazkilariak egin marinel batzuen zuri-beltzeko argazkiek erakusketa osatzen dute.

2012an, bi ukipen pantailak aurkeztuak izan dira :

- Itsasuko Ateka gelan, otsailaren 2tik 26ra
- Pauen, Lagunt eta Maita elkartearen egoitzan, otsailaren 27tik martxoaren 25era
- Donostiako Intxaurrondoko Kultur etxean, maiatzaren 7tik 31ra



## 4. Ezagutzen partikatzea

2012an, “Itsasturiak” erakusketa aurkeztua izan da :

- Baionako Artxibotegian, 2011ko abenduaren 2tik 2012ko otsailaren 29ra
- Irisarriko Ospitalean, uztailearen 16tik abenduaren 21era

Aipatzekoa da Koldo Amestoy eta Pantxix Bidart-en “Aneta Bokaleko” ikusgarria Ospitalean aurkeztua izan dela 2012ko urriaren 6an, “Itsasturiak” erakusketaren kariatara.

### ➔ Sareko ezagutza eraiki

Gai jakin batzuen inguruan osatu komunitateak - birtualak (sare sozialak, harpidedun zerrendak) edo errealeak (elkarteak, batzordeak, etab.) - informazioa hedatzeko kanal baliosak izan daitezke, bai eta trukaketa euskarriak ere (ekoizturiko edukiei buruzko iritziak, oharra, etab.). Bestalde, eduki berriak sortzeko baliagarriak izan daitezke ere. Xede horrekin, EKEk eremu hortan sartzearabaki du, sare desberdinak dinamizatzen saiatuz, izan dadin eduki sortzaile ala animatzaile bezala.

### - Komunikazio kanaletan sartu

Euskal kultur erakundeak partaidetzak bilatzen segitu du, bere komunikazioa hobeki egiteko asmoz. Hala nola, kultura informazioa gehiago hedatzeko asmoz, elkarlan bat abiatu da Euskal Irratiak federazioarekin, France Bleu Pays Basque-rekin (“Hogeita” irrati emankizuna), bai eta eitb.com informazio ataraiarekin (Xan Aire-k elkarrizketatu ipar Euskal Herriko kultura eragile batzuen lekukotasunen argitaratzea) eta Kanaldude web telebistarekin ere (“Zazpi” emankizunaren kultura agenda). Hedapen kanal horietan sartzearabaki da publiko ezberdinen gana iritsi ahal izateko, izan dadin lurraldearen, sailaren edota hizkuntzaren arabera.

Bestalde, [www.eke.org](http://www.eke.org) atariko agendako gertakariak Eusko Jaurlaritzaren Kulturklik plataforman sartzearabaki ere, ipar Euskal Herriko kultura bizia Euskal Autonomia Erkidegoan hobeki ezagutarazteko asmoz.

### - Sare sozialak animatu

Euskal kultur erakundearen presentzia sare sozialetan (Facebook, Google Plus, Twitter) berrikusia eta indartua izan da 2012an, bai itxura mailan (nortasun grafikoa), bai publikoetara egokitzeko ere (hizkuntza politika). Gaur egun, tresna horien segipen eta animazio jarraikia egiten dugu, Community Managing lan bat eskatzen duena.

### - Biztanleen parte hartze aktiboa sustatu

Euskal kultur erakundeak Euskal herriko biztanleak beren kulturaren ezagutzeko tresnen sortzean parte hartzearabaki nahi ditu, bereziki [www.eke.org](http://www.eke.org) atariaren bidez. Karia hortara, 2012an ere, pertsona-baliabideen ekarpenek EKEren webgunea etengabe elikatu dute, Jo Maris musikariaren partizioneetatik (300 dokumentu urrikir publikoaren esku emanak), Erramun Bachoc soziolinguistak euskarari buruz idatzi kroniketaraino.

Bestalde, atariko edukien aberasteko, beste parte hartze modu batzuek proposatuak izan zaizkie internautei (atariko egutegia, “Irudimena” sorkuntza lehiaketa...).

### ***Helburua : Euskal Herriko kultura aniztasuna sostengatzea***

### ***Culture-Kultura emaitza fondo amankomunaren bitartez***

Culture-Kultura emaitza fondoa 2011ko ekainaren 22an sortu da, Baiona – Akitania Hegoaldeko Eszena nazionalaren eta Euskal kultur erakundearen ekimenez, Euskal Herriko kultura aniztasunaren eta garapenaren aldeko diru pribatua biltzeko asmoz.

Culture-Kultura emaitza fondoaren sustapena, Baiona – Akitania Hegoaldeko Eszena nazionalaren eta Euskal kultur erakundearen komunikazio euskarrien bidez egina izan da, baina ere beste ekintza berezi batzuen bitartez :

- bi prentsaurreko : 2011ko ekainaren 22an eta 2011ko azaroaren 23an,
- 4000 aletan argitaratua izan den liburuxka bat, 2011ko azaroan,
- 4 totem, 2 kakemono et 10 erakustaltzari, 2011ko azaroan eginak,
- milaka gutuneko posta igorketa bat 2011ko abenduan,
- elkarrizketa bat 2012ko udaberriko *la Scène* aldizkarian,
- logotipo berri bat 2012ko urrian,
- 2012ko azaroan sareratua izan den webgunea.

2012ko abenduaren 31n, 16 enpresek Culture-Kultura emaitza fondoa sostengatzen zuten :

**4 « partaide nagusi »** (guttienez 4000 euroko emaitza) : Caisse d’Epargne, Baiona Euskal Herriko Merkatalgo eta Industria Ganbara, Novaldi, Lyonnaise des Eaux,

**9 « partaide handi »** (guttienez 2000 euroko emaitza) : Baionako Xingarraren kontsortzioa, Citroën Côte Basque, COL komitea, Dassault-Aviation enpresa komitea, ERDF, Kaufman and Broad, Mecabureau, Victor-Hugo ostatua, Trackoo,

**3 « partaide »** (guttienez 1000 euroko emaitza, 10 langile baino gutxiagoko enpresei zuzendua) : Digital Graffic, Mendiboure inprimategia, Dubernet de Boscq abokatu kabinetea.

16 enpresa horietaz gain, 20 bat pertsona badira emaitzak egin dituztenak.